

# Ekonomia eta Enpresa Fakultatea

## Gipuzkoako Atala

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua

Gradu Amaierako Lana:

# **TURISMOAREN PERTZEPZIOA ETA ERANTZUN SOZIALA DONOSTIAN**

**Egilea:** Ivan Alberdi Martinez

**Zuzendaria:** Aitziber Etxezarreta Etxarri

2021/2022 urtea

# LABURPENA:

Ondorengo txostenean nire Gradu Amaierako Lanaren edukia azalduko dut. Lan hau *turismoaren pertzepzioaz* eta *erantzun sozialari* buruzkoa da. Honetarako, azken urteetan egondako erantzun sozialen bilakaera eta azterketa egingo da, turismoaren pertzepzioan eta batez ere *Donostian* oinarrituz.

Lan honetan, lehenik, turismo hitzak dakartzan definizio eta aukera ezberdinen azalpen bat jasoko da, zer den eta bere xehetasunak ongi ulertzeko. Ondoren, turismoak gure inguruan duen eragina eta gizartean sorrarazi dituen aldaketekin jarraituko da, aspektu zabal guztiak kontutan hartuz. Puntuetako bat analisi kualitatiboa izango da. Elkarrizketak eginez, Donostiako erantzun sozialean eragile nagusiak ulertzeko eta nondik norako guztiak jakiteko balioko du, horrela emaitzarik garbienak lortuz. Honek guztiak, Donostiako herritarrek turismoaren gain duten pertzepzioarekin alderatzeko balioko digu. Honetarako, analisi kuantitatiboa egingo da, EHU-ko IKD egitasmotik lorturiko inkesta baten erabileraz. Emaitza horien analisisa egingo da, horrela hauek aurkitzen diren erantzun sozialekin bat datozen edo ez jakiteko, era estatistiko eta objektiboago bat lortuz. Emaitzen analisisa egin ondoren, erantzunen eta emaitzen antzekotasunak eta ezberdintasunen konparaketa egingo da ondorio zehatzak atera ahal izateko. Horrela, amaieran, turismoaren gain eta honen etorkizunaren gain aldaketaren bat egitea beharrezkoa den informazio baliagarria eskuratuz.

**GAKO HITZAK:** Turismoa, pertzepzioa, erantzun soziala, Donostia.

## ABSTRACT:

In the following report I will explain the content of my Final Degree Project. This work is about the *perception* and *social response* of *tourism*. To this end, the evolution and analysis of the social responses in recent years will be carried out, based on the perception of tourism and especially in *San Sebastián*.

This work will first include an explanation of the different definitions and possibilities involved in the word tourism, in order to better understand what it is and its details. Then we will continue with the impact of tourism on our environment and the changes it has brought about in society, taking into account all the broad aspects. One of the points will be qualitative analysis. By conducting interviews, it will be possible to understand the main factors in the social response in Donostia-San Sebastián and to know where they are going, in order to obtain the clearest results. All this will allow us to compare the perception of the citizens of San Sebastián with tourism. To this end, a quantitative analysis will be carried out using a survey obtained from the UPV / EHU's IKD project. An analysis of these results will be carried out in order to determine whether or not they correspond to the social responses found, in a more statistical and objective way. After the analysis of the results, the similarities and differences in the answers and results will be compared in order to draw specific conclusions. Thus, in the end, we will be able to know by gaining useful information if some changes are needed about tourism and its future .

KEY WORDS: Tourism, perception, social response, San Sebastián.

# AURKIBIDEA:

1. SARRERA .....	7
1.1. Helburu eta motibazioak.....	7
1.2. Metodologia .....	7
1.3. Egitura .....	8
2. TURISMOAREN EGOERA, BILAKAERA ETA PERTZEPZIOAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK.....	10
2.1 Turismo hitzaren kontzeptua .....	10
2.2. Turismoaren egoera eta bilakaera Espainian eta Donostian .....	11
2.3. Pertzepzioan eragiten duten faktoreak.....	12
2.3.1. Faktore ekonomikoak .....	13
2.3.2. Faktore soziokulturalak .....	14
2.3.3. Ingurumeneko faktoreak.....	15
2.3.4. Egoiliarren jarreraren aldaketa.....	16
3. TURISMOAREN AURKAKO ERANTZUN SOZIALAK .....	18
3.1. Mundu mailan izandako aurrekariak.....	18
3.1.1. Berlin .....	18
3.1.2. Venezia .....	19
3.2. Espainian izandako aurrekariak .....	20
3.2.1. Bartzelonaren kasua .....	20
3.2.2. Balear uharteetako kasua .....	21
4. ANALISI KUALITATIBOA.....	22
4.1. Elkarrizketako partaideak .....	22
4.2. Faktore ekonomikoak .....	24
4.3. Faktore soziokulturalak .....	26
4.4. Ingurumeneko faktoreak.....	28

5. ANALISI KUANTITATIBOA .....	30
5.1. Alderdi ekonomikoa .....	34
5.2. Alderdi soziokulturala .....	41
5.3. Ingurumeneko alderdia .....	48
6. EMAITZEN KONPARAKETA.....	51
6.1. Antzekotasunak .....	51
6.2. Desberdintasunak .....	52
7. ONDORIOAK.....	53
7.1. Gradu Amaierako Lanari buruzko hausnarketak eta ondorioak .....	53
7.2. Etorkizunari begira.....	54
BIBLIOGRAFIA.....	58
ERANSKINAK.....	59

# GRAFIKOEN AURKIBIDEA:

---

1 Grafikoa Turismoa hiriarentzat zerbait positiboa da .....	34
2 Grafikoa Turismoak Donostiako ekonomia hobetzen du. ....	34
3 Grafikoa Turismoak Donostiako ekonomia hobetzen ez duela autematen dutenak urte tarteka.....	35
4 Grafikoa Kalitatezko lanpostuen sorrera .....	36
5 Grafikoa Egoiliarrek turismoarekin duten erlazio ekonomikoa .....	37
6 Grafikoa Turismoak kontsumoan eragindako arazoak .....	38
7 Grafikoa Turismoaren eragina alokairuko eta etxebizitzaren prezioetan .....	39
8 Grafikoa Turismoa hiriko eragile ekonomiko nagusi izatea .....	40
9 Grafikoa Turismoa eragile ekonomiko nagusi bilakatzearen azterketa .....	41
10 Grafikoa Turismoari esker kultur eta aisialdi jarduera gehiago izatearen pertzepzioa.....	42
11 Grafikoa Kultur ezberdinekin harremanak.....	42
12 Grafikoa Turismoak azpiegiturretan duen garrantzia .....	43
13 Grafikoa Turismoaren eboluzioan parte-hartzea .....	44
14 Grafikoa Masifikazioaren arazoa .....	45
15 Grafikoa Turismoak kulturaren duen eragina .....	46
16 Grafikoa Turismo lizentzien iritzia .....	47
17 Grafikoa COVID-19aren eragina .....	48
18 Grafikoa Ingurumenaren iraunkortasuna .....	49
19 Grafikoa Ingurumenean eragiten duten arazoak .....	49
20 Grafikoa Ingurumena eta Turismoa.....	50

# TAULEN AURKIBIDEA:

---

1 taula Inkestetako pertsonen banaketa.....	31
---	----

# 1. SARRERA

## 1.1. Helburu eta motibazioak

Azken urteetan turismoak Donostiako hirian izan duen eragina oso nabaria izan da. Lan honen bitartez, eragin horrek hiritarren sorrarazi duen erantzun soziala aztertzea da. Horretarako, hiritarren pertzepzioa neurtzea du helburu, ondoren egondako mugimenduekin bat datorren edo ez kontrastatzeko. Honen bitartez, azken helburua, turismo sailetik aldatetaren bat aztertzea komenigarria edo beharrezkoa izango litzatekeen edo ez jakitea da. Erantzun sozialak sortutako mugimenduen eskaerak talde jakin batenak diren aztertu nahi da, edo hiritarrek orokorrean eskaera hauekin bat egiten duten beraien hiriaren noranzkoa bideratzeko. Beste hitz batzuetan, Donostiako biztanleek hirian ikusten diren turismoaren aurkako mugimenduekin zein neurritan egiten duten bat aztertzea da helburu nagusia.

Gai hau nire irakaslearen Aitziber Etxezarretaren proposamena izan zen. Beraren eta beste irakasle batzuen artean, ikasle talde bat hartu eta Donostiako turismoaren esparru ezberdinak aztertzei aukera eman ziguten. Beraz, Gradu Amaierako Lan hau, EHUko IKD (Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa) egitasmo batean txertatuta dago. Zehazki, HIRISARE deituriko IKD egitasmoren baitan egin da lan hau, hiri turismo jasangarria gaitzat harturik GRAL kolaboratibo sare bat sortu duena. Egitasmo honen baitan, aurreko 5 GRAL egin dira, eta aurreko deialdian beste hainbeste. Hauen emaitzetatik, hain zuzen ere, abiatu eta baliatu ahal izan dira aurtengo deialdiko GRAL lanak, zenbait galdetegi eta emaitza jada erabiltzeko aukerari probetxua emanaz. Atentzioa eman zidan desberdintasuna kolaborazioko ereduak izan zen. Ikasle taldeak, beraien irakasleekin batera, noizbehinka bilera bat izateko proposamena izan genuen, honekin bata besteari kasu jakin batzuetan iritzia emateko aukera eskuratuz, horrela denon onerako emaitzak lortuz. Proiektu desberdin honek nire atentzioa erakarri zuen, ohikoa den Gradu Amaierako Lan baten bestelakoa delako, baina horrez gain, turismoarekiko dagoen egoerak nire interesa pizten duelako. Turismoak gure inguruan eragin handia du zentzu guztietan eta etorkizuneko egoerak nola bilakatuko diren ulertzeko balio dezake. Askotan, turismoaren inguruan informazioa entzuten dugu baina teknikoki xehetasunak barneratzeko informazio iturri fidagarriagoak behar direnez lan hau aipatzen da hau aurrera eramateko.

## 1.2. Metodologia

Gradu amaierako lan hau egin ahal izateko, metodo zientifikoaren erabilera espero da, hau da, hasierako hipotesi bat planteatzea gerora analisi enpiriko baten erabileraz hau onartzeko edo baztertzeko. Zalantzarik gabe, hasierako hipotesi egokia ezartzeko, beharrezkoa da alde aurreko berrikuste bibliografikoa egitea, zenbat eta sakonagoa hobe. Alde enpirikoarekin hasi baino lehen, unibertsitatearen aldetik egin den elkarlana azalduko dut. Donostiako turismoaren inguruan ikerketa zabal bat egiteko, irakasle eta ikasle talde bat bildu gara, bakoitzak gai jakin bat aukeratuz. Behin hau eginda eta esparru

zabalak aukeratuta, bakoitzak indibidualki lanari ekin dio, baina tartean behin bilerak eginez. Honek, eskala ekonomietan gertatzen den bezala, abantailak sortu ditu. Besteen lanetatik informazioa edo ideia berriak lortzea eragin digu, denen elkarlan batetik baliatuz eta aspektu zabalagoak kontutan hartzeko gaitasuna emanez.

Alde enpirikoari dagokionez, prozedura estatistikoa erabiliko da, lehenengo mailako iturriez baliatuta, hau da, Donostiako hiritarrei egindako galdetegitik lortutako informazioarekin. Galdetegi hau Likert eskala erabilita egina dago, pertsonen iritzia eta jarrerak neurtzeko. Honen bitartez, talde ezberdinen batezbestekoak, grafikoak... aterako dira informazio erabilgarria lortzeko. Sarreran aipatu bezala, inkestak aurreko urteetan egindako lanetatik eskuratu dira, hau da, IKD egitasmoko lehenagoko edizioetatik.

Gerora, eskutan dugun gaiari buruz erlazio zuzenean aritzen direnekin elkarrizketan erabilera emango da, bi informazioak alderatzeko eta esparru guztiak estaltzeko. Izan ere, erantzun soziala neurtzeko datu base erabilgarririk ez bait dago Donostia mailan. Hau, pertzepzioak duen objetibotasun guztia ahalik eta era neurtuenean aztertzeko egingo da. Elkarrizketa hauek erantzun sozialean eta egoiliarren pertzepzioan gehien eragiten duten erakundeekin egingo dira, hau da, agente nagusiekin. Lehena Donostiako udal bertako kide batekin izango da. Elkarrizketa hau Garikoitz Muñozekin egin da, Donostiako turismo saileko helmuga kudeaketaren arduradunarekin. Honela “barrutik” hartzen diren erabakien ikuspuntua izango dugu eta kanpoko eragileen aurrean nola jokatzeko eragiten duten eta zer helburu dauden ulertzea egongo da. Bestalde, hurrengo bi elkarrizketak erantzun sozial bat egotearen arduradunekin izango lirarteke. Lehenik, Bizilagunekin elkarteko Elenarekin izango da elkarrizketa. Bizilagunekin elkartea, Donostia mailan turismoaren aurkakotasuna eta turismoaren desazkundearen aldeko taldea da. Gero, Ernai antolakundeko Garazi Castañorekin izango da ondorengo elkarrizketa, izan ere hauen turismoaren aurkako manifestazioak oso zaratatsuak izan baitziren Donostian (El País, 2017; El Periodico, 2017; El Diario Vasco, 2017). Hauen aukeraketa azken erantzun sozialetan parte hartu duten bi agente nagusiak izan direlako egin da.

### 1.3. Egitura

Lan akademiko hau zazpi atal nagusitan banatua egongo da. Sarrera batekin hasten da, orain gauden atalean zehazki, lan ordenatu eta logiko batekin jarraituz.

Jarrerak eta pertzepzioak konplexuak dira, faktore ezberdin askok eragiten dutelako, eta hauek talde ezberdinetan bana daitezkeelako. Gainera denbora eta momentuaren arabera hauek alda daitezke, beraz ikerketa honek Donostiako hiritarengan eragiten duten faktore ezberdinen analisia denboran zehar nola bilakatzen diren aztertzea behar du. Honetarako, berrikusketa bibliografikoa egingo da, non bigarren atalean turismoaren egoeran eta bilakaera ikusiko diren. Hau hiru zatitan banatua egongo da. Lehenik, turismo hitzaren esanahia eta bere xehetasun eta forma guztiak aztertuko dira, ondoren, Espainiako turismoaren eta Donostiako turismoaren bilakaerekin jarraituko eta amaitzeko, pertzepzioko jarrera hauetan eragiten dituzten faktore nagusiak aztertuko dira.

Hirugarren atalean errebisio historiko bat egiten da. Hemen, munduan zehar gehiago aztertuak diren kokapenetako erantzun sozialen azterketa egiten da. Honen



bitartez, datu ezberdinen eta egoera ezberdinen informazioa jasotzen da, Donostiako kasura egokitzen diren antzekotasun guztiak jasoz. Beste herrialdeetan eragile jakin batzuen aurrean, egoera jakinetan bertakoek izan duten jokabidea aztertuz, gaur egungo egoerarekin alderatzeko gai izango gara, gerora etorkizunean gertatu daitezkeen aldaketa posibleak aurreikusteko.

Laugarren atalean, metodologiako atalean azaldu bezala, elkarrizketak emango dira. Elkarrizketa hauek era estruktura erdi irekian egingo dira. Elkarrizketa hauetan, arazoan zentratutako estruktura erdi irekia emango da, ikerketa kualitatiboa era egokienean burutzeko. Hau egiteko, elkarrizketa arazoan zentratu behar da galdetegi sorta bertara bideratua egonik estimulu narratiboak gehituta (Flinck, U. 2012). Horrela, aztertutako kideen aldetik erantzun sozialaren arrazoi guztiak eskuratuz. Elkarrizketa hauek aipatu bezala, hiru alderdirekin egingo dira, Donostia Turismoarekin, Bizilagunekin elkartearekin eta Ernai antolakundearekin.

Bostgarren atalean, galdetegiaren analisisa egingo da. Honen helburua hiritarrek multzoan turismoaren gain duten pertzepzioa aztertzea da, bertatik informazio baliagarria eskuratuz. Horretarako galderak prestatuko dira aurkitutako emaitzentzat, era egoki eta ulergarri batean egituratzeko.

Seigarren atalean, bi zati nagusi aurkituko ditugu. Lehenengoan laugarren eta bostgarren ataletako emaitzen konparaketa emango da, berdintasunak eta desberdintasunak aurkitzeko. Atal honek informazio baliagarriena emango digu gure hipotesia kontrastatu ahal izateko. Bigarren zatian, turismoaren pertzepzioak duen eragina hiritarengan aztertuko da, erantzun sozialarekin bat datorren edo ez jakiteko. Erlazioa zuzena den edo ez den erantzuna eskuratuz.

Azkenik, zazpigarren atalean, ondoriok agertuko dira hausnarketa eta ikasitakoa azalduz.

## 2. TURISMOAREN EGOERA, BILAKAERA ETA PERTZEPZIOAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

Turismoaren gaur egungo egoera duela urte batzuetakoaren desberdina da, izan ere 2021. urtean mundu mailan %71ko beherakada eman zen 2019 urtearekin alderatuta (UNWTO, 2021). Hau ez da harritzekoa, izan ere dagoeneko bi urte baina gehiago daramagu COVID-19 pandemia agertu zenetik. Hala ere, 2010 garren urtetik aurrera begiratuta, turismoak duen bilakaera azkorra ezin da ukatu. Munduko BPG-an turismoak egin duen ekarpenaren aldaketa 6,11 bilioi dolarretatik 2010ean 9,17 bilioi dolar izatera igaro baita 2019 urterako (Estatista, 2020), hau da, %50eko igoera. Turismoaren garrantzia ikusteko, Espainia mailan 2019. urtean BPG-aren %12,4 bat izatera heldu zen (INE, 2020) eta Gipuzkoan %8 bat (Eustat, 2020), bietan goranzko joera izanik. Honek gure ekonomian duen pisua eta zuzenean gure ingurumenean eragiteko gaitasuna ikusirik, honek herritarrengan eragina duela ezin da ukatu, eta hauen pertzepzioa aztertzea beharrezkoa da. Hau ongi aztertu ahal izateko, turismoaren egoeraren bilakaera aztertuko da eta ondoren pertsonen pertzepzioan gehien eragiten dituzten faktoreak azalduko dira. Lehenik ordea, turismoaren kontzeptua ikusiko da.

### 2.1 Turismo hitzaren kontzeptua

Turismo hitzak izan duen definizioa urteak pasa ahala zabaltzen joan da, kontzeptu eta xehetasun gehiago gehitu zaizkion bitartean. Gaur egungo definizioa ondorengoa da:

“Turismoa fenomeno sozial, kultural eta ekonomikoa da, pertsonak bere ohiko ingurunetik kanpoko herrialdeetara edo lekuetara mugitzea dakar, arrazoi pertsonal, profesional edo bestelako arazoengatik. Pertsona horiei bidaiari deitzen zaie eta turismoak beren jardueran hartzen ditu barne, non horietako batzuk turismo-gastua dakarten.” (UNWTO, 2022).

Aipatzekoa da kontzeptu honetan, definizioa argia izan arren eztabaida sor ditzaketen pertsona taldeak aurki daitezkeela. Adibidez, urtero hiru hilabetez etortzen den pertsona bigarren etxebizitza bat duelako turista kontsideratu beharra dago edo urte jakin batzuk pasa ondoren dagoeneko bertakoa bezala har dezakegu? Kanpotik etorri den ikasle batek lau urtez joan etorriak egiten ibili bada hemen ikasketak egiten ari delako zein puntutan bihurtzen da bertakoa? Pertsona baten egoera profesionalak urte kopuru jarrai batean urte bakoitzeko hilabete batzuk hiri batean pasatzera derrigortzen badu, ez al da beste edozein egoiliar bezalakoa hiri horretan? Ikusten den bezala, subjektibitatea barneratzeko aukera du definizioak, eta are gehiago ere pertsonen pertzepzioa neurtzea bada helburua, pertsonok definizio jakin batera eusten ez garelako askotan. Esaterako, herritarrek ez baitituzte berdin automaten astebete pasatzera etorri diren familia bat edo emandako adibideetako pertsona bat. Horregatik, turista hitzak dituen xehetasunak aipatzea komenigarria da, hauenganako pertzepzioaren azterketa egitean alderdi guztiak kontutan hartu ahal izateko.

Hau ikusi ondoren, zein turismo mota dauden aztertuko da, horretarako bi sailkapen ezberdin erabilita. UNWTO-ren glosategiak oinarrizko hiru banaketa egiten ditu. Lehen barne turismoa da, non pertsona batek bere herrialdearen barnean jarduera batzuk burutzen dituen bidaia turistiko baten barruan. Bigarrena turismo hartzailea izango litzateke, helmugan egoiliarra ez den pertsona batek jarduera batzuk burutzen dituen bidaia turistiko baten barruan. Sailkapen honetan azkenik kanpoko turismoa da, bizilekuko herrialdetik kanpo egiten diren turismo jarduerak izanik. Gero, hiru hauen konbinazioekin, barnealdeko turismoa, turismo nazio anala eta turismo internazionala eskuratzen dira.

Turismoren antropologian aditua den pertsona batek aldiz, sailkapen desberdin bat eratzen du. Sailkapen honetan turismo motak hauek direla adierazten du: aisialdirako turismoa, esperientzia-turismoa, dibertsio-turismoa, turismo esperimentalak eta turismo existentziala (Cohen, 2004).

Talde hauen sailkapen ezberdinak ikusi ondoren, analisiak egiterako orduan kontutan izan behar dira desberdintasun hauek, izan ere talde guztienganako pertzepzioa ezberdina izango baita, eta beraz, sortzen eta ikusten ditugun erantzun sozialetan pisu ezberdina izango dute.

## 2.2. Turismoaren egoera eta bilakaera Espainian eta Donostian

Gaur egungo turismoaren datuak asko aldatu dira pandemiaren ondorioz, eta beraz dauden aurreikuspenak aldagai ezberdinen menpe egongo dira, orain arte aztertu ez direnak. 2010. urtetik aurrera, gorakada jarrai bat eman da Espainia mailan atzerritar turistaren etorreran, urte horretan 53,6 milioi izatetik 2019an 83,5 milioi izatera pasa baitziren (Datos Macro, 2022). Urte horretan bertan, munduko bigarren helmuga turistiko nagusia izan zen Frantziaren atzetik, eta turismoak sorrarazitako sarrerengatik ere bigarren postuan kokatu zen, Estatu Batuen atzetik (OMT, 2020).

Espainiako bisitariak herrialde ezberdin askoko jatorria dute, baina lehen lau postuak ordena honetan kokatzen dira: Frantzia, Alemania, Erresuma Batua eta Herbehereak (Datos Macro, 2022).

Gaur egun COVID-19ren ondorioz, datuak asko murriztu dira, izan ere kanpoko turistaren etorrera %62,7 batean murriztu da 2019 urtetik 2021 urtera (INE, 2022). Datu hauek ikusi ondoren, industria, merkataritza eta turismoko ministerioren azken datuak aipatzekoak dira. Honetan gaua pasatzen duten turistaren kopurua 24,1 milioi pertsonakoa dela agertu da urteko lehen bi hilabeteetan, pandemia aurreko egoeraren %74ra iritsiz (La Moncloa, 2022).

Donostiako kasuan ere, datu hauek antzerako bilakaera izan dute, izan ere hiri oso turistikoa baita hainbat arazoengatik. Donostiako hiriak baliabide apartak ditu turistak erakartzeko. Hiri bertatik hasita, klima epela, hiru hondartza ikusgarri, horietako bat Kontxako hondartza ezaguna izanik, alde zaharreko kaleak, arkitektura erakargarria, haizearen orrazia... Horrez gain, eduki kulturalaren aldetik mugimendu handia sortzen duten ekitaldiak ere ospatzen dira, Nazioarteko Zinema Jaialdia (Zinemaldia) eta Nazioarteko Jazzaldia bezalakoak. Gastronomiak ere indar handia du hiri honetara

bisitariak erakartzerako orduan, izan ere goi mailako sukaldaritzaren hiri bat da 16 Michelin izarrez betea. Horrez gain, sukaldaritza tradizionalak lotura estua du bertako kulturarekin, elkarte eta tabernetan islatzen direnak, pintxo, sagardo, txakolina eta antzeko produktu guztiekin.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, BPG-aren ehuneko murriztuago batean eragiten du turismoak, 2010-2019 urteen tartean batez bestez %6,06 izanik (Eustat, 2021). Hala ere, Gipuzkoako turismoak indar handiagoa du Araba eta Bizkaikoak baino, urte bere horien batezbesteko pisua BPGarekiko %7,65a izanik. Beste turismoko guneak ere badaude Gipuzkoan, nagusia eta handiena Donostia da eta datu horietan nabariena. 2021 urtean 553.626 bisitari egon ziren Donostiako hoteletan egonaldia egiten (Eustat, 2022). Abuztuko hilabetean, 2019 ko datuetara iritsi ziren hoteletako erreserbak eta gainera hauek gainditu egin ziren, Espainiar herrialdeetik etorritako turista kopuruaren gehiengo markak gaindituz 45.453 turistaren harrerarekin (INE, 2022). Beraz ikusi daitekeen modura, gaur egungo egoera pandemia aurreko egoerara hurbiltzen doa neurri batzuetan, batez ere turisten kopuruari deritzenez.

Gaur egungo egoerarekin jarraituz, Donostiako turismoko lau gune nagusiak aipatzea komenigarria da, gero galdetegiaren analisia egitean, datu hauek kontutan izatea komenigarria izango delako. Datu hauek Donostiako turismo planetik aterata daude, 2017-2021 urte tartekoak (Visit-Bizi, 2021). Lehena alderdi zaharra izango litzateke, hiriko balio sinboliko handi batekin udalerrri honetako ostalaritza konzentrazio handiena du, 51,6 establezimendu izanda 1.000 biztanleko, batezbesteko 7,1en oso gainetik. Bigarren gunea hiriko erdigunea da, bertan merkataritza jarduera handia aurkitzen delarik, Donostiako merkataritzaren %38a bertan kokatuz. Hirugarrena Antiguoko auzoa izango litzateke, azken hamarkadan hotel berrien kokapen bihurtu baita, inguruan aurkitzen diren elementuez lagunduta apartako lekua delako, Hondarretako hondartza, haizearen orrazia eta Igeldo mendia bezalakoak. Azkenik Groseko auzoa egongo litzateke, azken hamarkadan izan duen aldaketa nabaria erabilera turistikorako etxebizitzaren zenbatekoaren hazkundea izanik. Hemen surfarekin loturiko eskaintza oso nabaria da Zurriolako Hondartza dela eta, gainera Kursoalak jendearen erakarpena sortzen du.

### 2.3. Pertzepzioan eragiten duten faktoreak

Zati honetan egoiliarren pertzepzioaren gain gehien eragiten duten faktoreak aztertu nahi dira, gerora hasierako hipotesi zehatzagoa egin ahal izateko eta erantzun sozialak era egokiagoan ulertu ahal izateko. Hiritarren jarreraren analisisan, eragin positiboak eta negatiboak egon daitezke ondorengo lau dimentsiotan: ekonomikoa, soziala, kulturala eta ingurumena (Andereck, Valentine, Knopf, & Vogt, 2005).

Faktore hauek ulertzeak garrantzia dauka, izan ere turismoaren etorkizun egokia bermatzeko bertan bizi direnen borondatea eta laguntza behar da (Besculides, Lee & McCormick, 2002). Turismo honen etorkizun egokia segurtatzeko, turismoa kudeatzeaz arduratzen direnak, hiriko/herriko bizilagunen babesa edo oposizioa duten aztertu

beharra dute, horrela turismoaren garapenean inpaktu negatiboak minimizatu ahal izango dituzte (Williams eta Lawson, 2001).

Turismoa erakartzen jarraitzeko, garrantzi handia dute egoiliarrek, hauen adeitasuna oinarrizko osagaia baita. Hauen haserrea, gogogabetasuna eta mesfidantza turistengan eragina izaten amaitzen dute, non etorkizunean leku hauek bisitatzeko interesa galtzen dute, ez baitira ongietorriak sentitzen (Fridgen, 1991).

Hau behin azaldu ondoren, aurretik aipaturako faktoreen xehetasunak aztertuko dira hauen garrantzia eta biztanleetan duten eragina analizatzeko, bai inpaktu positiboan aldetik eta bai suposatzen duten kostuen aldetik ere. Bakoitzean, aipaturiko bibliografia erabiliz, gehien errepikatu diren eta niri nagusienak iruditu zaizkidan efektuak bilduko dira, esan bezala, positiboetan eta negatiboetan banatuz. Gero, egoiliarren jarreraren bilakaeraren nondik norakoak aztertuko dira, galdetegiak eta inkesten analisia egiterakoan informazio aberasgarria delako, horrela ikuspuntu ezberdinetatik hartu daitezkeelako.

### 2.3.1. Faktore ekonomikoak

Faktore ekonomikoak dira, batez ere, jarrera positiboak sortzen dituen arrazoi nagusiak. Hala ere, bi ikuspegi nagusitan banatzen dira herritarrek faktore ekonomikoen inguruan. Lehen garapenaren aldekoa da, ekonomiaren alderdi garrantzitsua dela deritzotelako. Besteak aldiz, turismoaren gehiegizko garapenak eta aurreikusi gabeko planifikazioak, bizilagunek ekonomietan kostua suposatzen dutela pentsatzen dutelako (Andereck, Valentine, Knopf, & Vogt, 2005).

#### **Faktore positiboak**

Egoiliarren pertzepzioan ekonomiarekin loturiko faktore positibo garrantzitsuena enpleguaren sorrera da. Turismoak bai zuzeneko eta zeharkako enpleguak sortzen ditu, hoteletatik hasita eta dendetan bezalako zeharkakotan jarraituz. Inguruko merkatarien eta sektore honen inguruan abantaila bila dezaketen pertsonatan aukerak zabaltzen ditu turismoak, orokorrean era batera edo bestera guztien onura izatera amaituz.

Ondorengo bi faktore positiboan arrazoiek ez dira zuzenean hautematen, baina biek eragiten dute onura da herritarrek aldekotzat hartzen dituztenak. BPG-aren hazkunde bat eragiten duenez turismoak, azpiegiturak hobetzeko aukera handitzen da, aisialdirako guneak gehituz, jarduera berriak egiteko eskaintzaren gehikuntza izanik eta inguruko egituren egoera hobetuz. Azken emaitza horren zati bat, turismoak uzten duen diruarengatik lortzen dela dakitenez, beraientzat onura dela ulertzen dute. Aldi berean, turismoa esportazio ikusezin bat bezala kontsidera daiteke, era azkar batean beharrezko atzerriko moneta eskuratzeko aukera ematen duelako. Honek oreka ekonomikoa egonkortzea eragiten duenez, estatuarentzat, eta aldiz, herritarrentzat, onuragarria izaten amaitzen du.

Hala ere aipatzekoa da, turismoarekin zuzenean etekin ekonomiko bat lortzen duten egoiliarrek gogotsuagoak dira turismoa defendatzerako garaian,

baina honek ez du esan nahi gai ez direnik faktore negatiboak autemateko (Pizam, 1978).

### **Faktore negatiboak**

Kaltegarriak diren faktoreak nagusiki bi dira ekonomiarekin lotuak. Biztanleei alde batetik, batez ere prezioen igoera, higiezinetan bereziki, eta inflazioak eragiten diete aurkakotasuna. Turisten egoera, orokorrean, erosteko ahalmen handiago bat da, horrek aipatutako egoera sortuz. Bestetik, azpiegitura jakin batzuekin gertatzen dena da. Azkenean, egoiliarrek beraien zergak ordainduz, turistek soilik erabiltzen dituzten azpiegiturak mantentzen dituztelako.

Bi faktore nagusi hauez gain, turismoaren gain ekonomiak izan dezakeen menpekotasunak eta honek ekar ditzakeen ondorioak ere pertsona batzuegan garrantzi handia du. Dependentsia handi batek sor dezakeen gora-behera batek herrialdeko balantza eta segurtasun ekonomikoa gehiegi mugi dezakeelako.

Aipatzekoa da, Donostiako kasura egokitzen ez den arren, kanpoko kapitalaren ekarpenarekin lehiatzeko aukera ez badago, batez ere garapen bidean dauden herrialdeetan gertatzen dena, bertako egoiliarrek aukera kostu horri garrantzia ematen diotela eta kontutan hartu beharreko faktore negatiboa izango litzakeela.

#### 2.3.2. Faktore soziokulturalak

Inpaktu soziokulturei dagokionez, honela definitzen dira: “Bisitariak horien egonaldietan mantendutako harreman sozialen emaitza dira, zeinetan hauen intentsitatea eta iraupena faktore espazial eta denborazko zehatzen gain dauden.”(UNWTO, 1998). Eragin mota hauek helmugan bizi kalitatean aldaketa ekartzen duten faktoreak biltzen ditu, egoiliarren eta turisten arteko interakzioetatik eratorriak. Hauek sailkatzerako orduan ere, positibo eta negatibo nagusien bilaketa egingo da. Kasu honetan, Bigné, Font, eta Andreuren, 2000ko lanean eta ONWTO-ren 2005eko lanak bat egiten.

Faktore soziokultural positibo eta negatibo nagusienak aipatu aurretik, Hunter eta Green-en 1995-eko lana aipatzea komenigarria dela iruditzen zait. Honetan, turismoak inpaktu soziokulturean gehien eragiten duten faktoreen banaketa bat egiten baita. Faktore ezberdin hauek ondorengo sei taldetan banatzen ditu: Historia, arte tradizionalak, balioak eta arauak, erlijioa, tradizioak eta azkenik hizkuntza.

### **Faktore positiboak**

Faktore positibo nagusiak aztertzean, hiru dira batez ere gailentzen direnak. Lehena, bai turistek eta bai egoiliarrek erabiltzen dituzten azpiegiturak finantzatzeko laguntza lortzen dela, errepide, aireportu... bezalakoak. Bigarrenak kulturarekin du zerikusi zuzena, izan ere turismoak bertako kulturaren ezagutza hobetzea lortzen du, komunitate-identitatea sortuz. Hau, tokiko komunitatea eta

bere ondarea balioesten laguntzen duelako gertatzen da. Azken faktore positibo nagusia kultur truke handiago bat gertatzen dela da. Kultur ezberdinen arteko elkarrekintza handiagoak, nazioarteko ulermena eta ongizatea lortzen ditu, bai turisten eta baita egoiliarren gizarte onura eskuratuz.

### **Faktore negatiboak**

Faktore soziokultural negatiboei dagokienez ere, batez ere hiru dira gehien nabarmentzen direnak. Hasteko, hiruren artean zuzenena aipatuko da. Beraz, lehen faktore negatibo nagusia turisten eta bizilagunen arteko gatazkak dira. Turismoaren jarduerak jatorri kultural eta izaera ezberdineko pertsonak harremanetan jartzen ditu, elkar ez ulertzea eraginez eta jarrera negatiboak sortzea eraginez. Honek antipatiak eta deserosotasunak sortzen ditu. Bigarrena emigrazioaren hazkundeak gentrifikazio egoera ekartzea da, egoiliarren bizi maila murriztuz. Azkenik, erakusketa-efektua deritzon arazoaren sorrera da. Honetan bertako bizimoduaren aldaketa gertatzen da, beraien izaera aldatuz eta turistena imitatuz. Honek kultura tradizionalen aldaketa ere ekar dezake.

#### 2.3.3. Ingurumeneko faktoreak

Ingurumeneko faktoreak turismoak ingurumenean alderdi ezberdinetan eragiten dion inpaktu ezberdinen pilaketari deritzo. Ingurumen-inpaktua dagoela esaten da turismoaren jarduerak aldaketaren bat ekartzen duenean lurraldeko inguruan, hau aldekoa edo kontrakoa izanik. Kasu honetan, Bigné, Font, eta Andreuren 2000ko lanean eta ONWTO-ren 2005eko lanak ere bat egiten dute aurretik aipatutako Andereck, Valentine, Knopf eta Vogten lanarekin ingurumenaren arabera egoiliarren pertzepzioan gehien eragiten faktoreekin, faktore soziokulturaletan gertatzen zen bezala.

Ingurumeneko faktore positibo eta negatibo nagusienak aipatu aurretik, Hunter eta Green-en 1995-eko lana ere aipatzea komenigarria dela iruditzen zait aurreko atalean bezala. Honetan, turismoak ingurumenean gehien eragiten duten faktoreen banaketa bat egiten baita. Faktore ezberdin hauek ondorengo bost taldetan banatzen ditu: fauna eta flora, poluzioa, erosioa, baliabide naturalak eta ikusmen inpaktua. Hauek ezagutu ondoren, atzetik aipatutako lanekin bat egiten dela ikus daiteke.

### **Faktore positiboak**

Turismoak pertzepzioaren gain eragiten dituen faktore positibo nagusiak hiru dira. Lehena, baliabide natural eta historikoen kontserbazioa da. Hauek askotan helmuga turistikoa izaten dira, eta horiek ustiatzeko ahalmen bat sortzen denez, hauen egoera egokia garrantzitsua bilakatzen da. Turismo jardueraren iraunkortasunaren faktore garrantzitsuenetako bat dira. Bigarren faktorea ingurumeneko baliabide naturalak zaintzeko neurriak hartzen direla da. Hauetarako kalitate-arauak ezartzen dira hiritarren ongizatearekin lotura dutenez,

askotan positibotzat autematen dira. Azkenik natur ingurumenaren balorazioaren hazkundera dago.

### **Faktore negatiboak**

Turismoak ingurumenean eragiten dituzten faktore negatiboak aztertzean ere, nagusiki hiru direla aipa daiteke. Lehenak antzeko faktore multzo bat hartzen du bere baitan, ingurumenaren hondatze fisiko bat izanik. Honetan, uraren gehiegizko kontsumoa, airearen kutsadura, kutsadura akustikoa, baso suteak... barneratzen dira. Bigarrenak paisaia eragingo luke. Honetan batez ere turistei zuzendutako zerbitzuak aurrera eramateko eraikitako eraikinak askotan inguruneko tipologia arkitektonikoarekin bat ez duela egiten aipatzen da. Azkeneko faktore negatibo nagusia hondakinen tratamenduari loturik dago. Kutsadura handi batek eta hondakinen hazkundera handi batek turista kopuruaren murrizketa eta egoiliarren kaltea ekar dezakeelako.

Ingurumeneko faktore hauek guztiak ikusi ondoren, atal konkretu honetan esan beharra dago neurketa egitea zaila izaten dela. Turismoaren ondorioz sortzen diren ingurumeneko inpaktuak ezagutzera eta aztertzea ez da erraza, ingurumenaren gaineko eraginak elkarrekin erlazionaturik dauden multzo baten produktua baitira, eta beraz, eskusiboki turismoaren zatia zein neurritakoa den zehaztea zaila izaten da (Aguiló, Barros, García & Rosselló, 2004)

#### 2.3.4. Egoiliarren jarreraren aldaketa

Atal honetan, egoiliarrek turismoaren aurrean duten jarreraren eboluzioa aztertuko da. Lan ezberdinetan agertzen den bezala, bizilagunen jarrerak hasiera batean euforia puntutik abiatzen dira gehienetan, gero aurkakotasun batera igaroz. Aldaketa hori eman ahal izateko, bertakoek hautematen dituzten kostuak benetako edo espero diren onurak gainditzen dituztenean gertatzen da (Long, C. et.al. , 1990). Sekuentzia honek "Irridex" izena hartzen du baina Cardona, 2012 lanean aurki dezakegun moduan, beste autore batzuetan babestuz, eredu berri bat aurkeztu du.

Eredu honetan, leku bateko komunitateak aldi berean jarrera positiboak eta negatiboak, laguntza edo oposizioa edota izaera aktiboa edo pasibo gaitasuna aztertzen du. Honetan, bost jarrera nagusi ikus ditzakegu: erresistentzia, atzera egitea, saihestea, biziberritzea eta adopzioa. Eredu honetan aipatzen denez, batez ere turismoaren maila altu batera iristean eta jende-oldeak etortzen hasten direnean, hauek talde prestatuetan etortzen dira, bertako egoiliarrekin harremanak galduz. Honek, masifikazio egoerak eta narriadura sorrarazten duenez, egoiliarrek oposizioko jarrera hartzen dute, azkenean turistak bertako duten interes guztia desagerraraztea lortuz eta bertako jardura turistikoari amaiera emanez.

Prozesu honetan, jarreraren eboluzioaren nondik norakoan planteamendua ondorengoa da aipatutako azken lanean. Berak deritzon zirkuitua bi atal nagusitan banatzen da, erdigunea eta begizta zatiak. Erdiguneko zatian, egoiliarren pertzepziotik



abiatuta, turismoarengaindik jasotako kostuen eta onuren ebaluazioa gertatzen da, gizabanakoen pentsaera subjektiboa izanik. Atal honetan aurretik aipatutako faktore positibo eta negatibo genienak barneratzen dira. Erdiguneko zati hau aldi berean bi azpi zatitan banatzen da, ekonomiarekin loturikoa eta aldaketekin loturikoa. Lehenak nagusiki aspektu positiboak jasotzen ditu, batez ere turismoaren agerpenak inguruko bizilagunei hazkunde ekonomikoa sorrarazten dietelako. Bestalde ordea, aldaketekin loturikoak aspektu negatiboak pilatzen ditu, hasieratik aurreikusi gabeko egoerak agertzen direlako, bizilagun batzuen deserosotasuna ekarriz. Zati honetan dagoeneko herritarrek turismoaren garapenean aurrean zer jarrera hartuko duten zehazten dute. Ondoren begizta zatia agertzen da, azpi zati berdinekin. Begizta honek hiru fase konstante ditu, pertzepzioa lehenik, gero egoiliarren jarrera, eta azkenik, gauzatzen dituzten ekintzak. Begizta jarrai honetan ikusten diren hiru fase hauek denbora guztian gelditu gabe agertzen dira, aspektu negatiboek positiboak gailendu arte, edo beste era batera esanda, aipatutako bigarren azpi zatiak, hau da, aldaketa negatiboek lorturiko hobekuntza ekonomikoak gailendu arte.

### 3. TURISMOAREN AURKAKO ERANTZUN SOZIALAK

Sarrerako egitura puntuan azaldu bezala, atal honetan beste hiri turistikotan egoiliarrek turismoaren aurka izan dituzten joerak eta honen aurrean hartu diren neurriak jasotzea da helburua. Beste kokapenetan gertatutakoa aztertuz, Donostiako hirian ikusten denarekin konparatuko da, horrela informazio baliagarria eskuratuz eta hurrengo ataleko irakurketak era zehatzago batean egin ahal izateko.

#### 3.1. Mundu mailan izandako aurrekariak

##### 3.1.1. Berlin

Hiri honen aukeraketa turismoaren aurkako mugimendu sozialen aitzindarietako bat izateagatik egin da. Novy, J (2017) lanean eta Alcalde, J et.al (2018) lanean agertzen den bezala, 1990 urterako dagoeneko turismoaren aurkako mugimenduak ikusi ziren. Hurrengo kasuetan bezala, Alemaniako hiriburuan kaleetatik mugimenduak eta paretetan turisten aurkako idatziak agertzen hasi ziren. Hauek sortzen zuten eraginaren ondorioz, 1992an politikarien artean eztabaidagai nagusia bilakatu zen. Hala ere, instituzioen aldetik turismoaren hazkundera bilatu zen, urtero jasotzen zituzten turista kopurua igoz. 2004ra arte ez zen aldaketarik egin, urte honetan “*Tourismuskonzept*” deritzona aplikatu zen arte, hau hobetzeko asmoz. Beraz, hasiera batetik eman ziren mugimenduak eta ingurumen honen inguruan zegoen egoerak, gobernuaren aldetik neurri batzuk hartzen hastera behartu zuten.

Hobekuntza honek baliorik ez zuela eta eragin errealik sortzen ez zuela defendatu zuten turismoaren aurkakotasuna erakusten zuten alderdiek. Aipaturiko ekintzez gain, eraso fisikoak ere egotera heldu zen egoiliar eta turisten artean. Egoiliarren aldetik arazoak hautematen jarraitzearen ondorioz, “*Tourismuskonzept 2011*” estrategia eman zen aurrera. Honen helburua hazkunde batekin jarraitzea den arren, gaur egungo egoeratarako egokitzea zuen helburu, nagusiki turismoaren faktore ekonomikoa modu iraunkor batean indartuz, hau da, hautemandako kostuak murrizten ahaleginduz eta onurak indartzen saiatu.

Aipaturiko bigarren lanean, indikatzaile ezberdinen bitartez, presio turistikoa eta turismoaren aurkako mugimenduak erlazionatzen ditu. Horrela, emaitza bezala, Berlingo hiria handia denez, arazoak murriztea errazagoa dela azaltzen du eta honek garrantzi handia duela argudiatzen du. Izan ere, aurkakotasunen mugimenduak igo egingo liratekeela aurreikusi daiteke presio turistikoa handiagoa izango balitz. Azken puntu hau Donostiako hirira aplikatuz, eta hiri txikia dela jakinik, mugimenduetan kontuan hartu beharreko puntua dela esan daiteke.

### 3.1.2. Venezia

Venezia hiriaren aukeraketa, kontrol gutxiko turismoak egoiliarrei kalte handiak sortzea eragin dezakeela erakusten duen frogapena delako egin da. Atal honen azterketa egiteko Barbacci, N (2018) eta Virgos, R (2020) lanak erabili dira, emandako mugimenduak eta sortu diren kalteak bertan jasotzen direlako.

Turismoaren aurkako mugimenduetan bezala, urte ezberdinetan kaleetan manifestazioak eta turisten aurkako mezuak eman ziren eta ematen dira Veneziako hirian. Horren aurrean harturiko azken neurrietako bat goi-denboraldietan turisten tasak zortzi eurotik hamar euro izatera pasatzea izan da. Beste neurri batzuk ere hartu diren arren, mugimenduen aldetik ez eraginkorrak direla defendatzen dute eta bertakoek alderdi negatibo guztiak berdin pairatzen jarraitzen dutela. Kalteak mota askotakoak dira, gentrifikaziotik hasita ingurumeneko kalte multzo handi batekin jarraituz. Ingurumeneko kalte askoren arrazoiak, aipaturiko bigarren lanean jasotzen dira. Honetan gurutzaldiek bertako ingurumenean eragindako aldaketak eta kalteak azaltzen dira. Arazo hauek airearen kontaminazioa, uraren kontaminazioa, kontaminazio akustikoa, etxebizitzaren narriadura... bezalakoak dira. Beste leku turistikoetan jasaten diren kostu ekonomiko eta soziokulturalak gain, hiri honetan ingurumeneko kostuak oso altuak dira, bertakoek kalteak handituz.

Neurri ez eraginkorren eta kontrol gutxiko turismo jarriak bertako populazioaren murrizketara eraman du. Hirian hoteletako eskaintza igotzen doan bitartean, 1950 urtetik gaur egun arte, bertako populazioa 175 mila biztanle izatetik 50 mila inguru izatera pasa da. Turismoak hirian bizitzeak sortzen dituen kalteak onurak baino handiago direnez, pertsonen atsekabea sortu du eta bertan ez bizitzea desegokia dela automaten dute.

Kasu honetan ikus daitekeenez, kontrol bat mantentzea garrantzitsua dela erakusten da, ez egitekotan hiritarrek kostuak pairatzen amaituko dutelako. Gainera, ingurumeneko faktoreek ere garrantzi handia dutela ikus daiteke, lan eta teoria askotan faktore ekonomiko eta soziokulturalak pisu gehiago ematen dieten arren. Ondorioz, hasiera batean sektore jakin batzuen kalterako izan daitezkeen neurriak hartu behar direla ondoriozta daiteke, kalte horiek hiritar denek pairatzen ez amaitzeko.

## 3.2. Espainian izandako aurrekariak

### 3.2.1. Bartzelonaren kasua

Hiri honetan turismoaren aurkako mugimenduak 2010 urte inguruan hasi ziren era jarraiago batean. Pertsona taldeek mugimenduak antolatzearen arrazoi nagusia, Mansilla, J. (2018) lanean agertzen den bezala, epe labur batean kale batzuetan izandako aldaketak izan ziren. Turismoaren aurkako erantzun sozialetan bezala, hemen ere turismoaren aurkako mezuak eta kaleetan manifestazioak egiten hasi ziren. Bartzelona, horiez gain, kasu batzuetan hoteletan eraso bandalikoak ere gertatu ziren, aurkakotasun mailak puntu altuago batera helduz.

Ponblenou kalea da lanean geien aztertzen dena eta honetan, epe labur horretan kalea turistentzat bilakatu zela argudiatzen zuten. Ostalaritzako guneen igoera eman zen beste beharrezko merkatal guneen beharokada ematen zen bitartean. Bestalde, etxebizitzaren prezioen igoera nabaria eta alokairuen garestitzea egon zela ere kexa arrazoi nagusietako bat bilakatu zen, honekin zuzenki loturik aurreikusten ziren babes ofizialeko etxebizitza gutxiago eraikitzearen erabakia eman zen momentu berean. Horren ondorioz, 2016 urtean *#EnsPlantem (zutik gaude)* mugimendua sortu zen, kale horietan hotel berrien eraikuntzak egin ahal izateko proiektua onartu zenean inflexio puntu bezala hartu zutelako.

Alcalde, J et.al (2018) lanean agertzen den bezala, hiriaren aldetik 2010-2015 turismoaren aurreko estrategiak desegokiak izan ziren eta turismoaren aurkako pertzepzioak igo egin ziren. Eredu horrengatik eta gero eta hiritartasuneko tentsio handiagoengaitik, turismoaren eragin negatiboak konpontzeko Bartzelonako udalak, beste eragile batzuekin batera, 2020 ko turismoko plan estrategikoa hasi zuten martxan. Plan berri honek, eredu nagusitzat bizikidetzaren orekan jartzea da, egoiliarren eta bisitarien onura bilatuz, bakoitzaren nortasuna zaintzen den bitartean iraunkortasun bat lortzeko asmoz.

### 3.2.2. Balear uharteetako kasua

Balear uharteetan turismoaren aurkako mugimenduak zabalak dira, puntuaren arabera arazo nagusiak urtarokotasuna edota ingurumenaren narriadura izan daiteke. Atal hau egin ahal izateko Cardona, J (2012), Blazquez, M (2008) eta Amer, J (2009) lanak irakurri dira, arazo nagusiak jasotzeko eta bertakoen pertzepzioa aztertzeko.

Lan hauetan batez ere, alderdi ekonomikoak sortzen dituen onura kopuru handia dela eta, kostuak sortzen dituen faktoreak baina balio handiago hautematen dutela egoiliarrek. Horrela, turismoaren aurkakotasuna sortzen duten mugimenduek bertakoen parte hartze txikiagoa lortzen dute. Mugimendu hauetan parte hartzen duen jendea, orokorrean gazteak izaten dira (%75 inguru) Balearretako kasu hauetan eta ikasketa mailak batezbestekoak baina altuagoak izaten dira. Beraz, gazteak dira turismoaren kostuak gehien pertzibitzen dituzten urte tarte taldea, eta honen aurrean zerbait egiteko arrazoiak ikusten dituztenak. Aipatu beharra dago, mugimenduetan parte hartzen duten pertsonak gazteak diren arren, biztanleria osoaren pertzepzioa aztertzen duten lanetan, turismoaren hazkundearen aldeko pertsonen kopurua murriztu egin dela urteak aurrera egin ahala. Dagoeneko, hazkundearen aldeko eta hazkunde lasai baten aldekoen proportzio berdinetara heltzen hasi dira protekzionismoko eta alternatiba ezberdinen bultzatzaileen kopurua. Guzti honek, mugimendu ezberdinek indar gehiago hartzea eta hiritarrei kostuak daudela erakustea sorraz du, horrela neurri ezberdin batzuk hartzera derrigortuz.

Arazoa larritzen ez joateko aipaturiko hirugarren lanean lan araudi justuagoak eta gizarte politika aurreratuagoak ezarri behar direla azaltzen du. Izan ere, faktore ekonomikoen onurak hazten jarraitzea nahikoa ez dela dio kostu guztiak gainditzeko eta beste motatako faktorek kontutan hartzen hasi behar direla, beti ere ekonomikoak atzean utzi gabe.

Horrela, atal honetan, beste lekuetan ingurumenak duen garrantzia edota hiria handia izateak duen garrantzia bezala, Balearretako kasuan faktore ekonomikoek sortzen dituzten onurak pisu handia dutela ikus daiteke. Baina hauek bakarrik kontutan hartuz gero, lehenago edo beranduago, beste faktoreei ere garrantzia eman behar zaiela konturatu dezakegu, turismoaren iraunkortasuna eta denen onura bermatu ahal izateko.

## 4. ANALISI KUALITATIBOA

Atal honetan, zer erantzun sozial mota egon diren eta hauen arrazoiak aztertzea da helburua. Horretarako, metodologiako atalean azaldu bezala, elkarrizketak emango dira ondorengo hiru alderdirekin: Donostia Turismoa, Bizilagunekin elkartea eta Ernai antolakundea. Elkarrizketak izatean, atal honetako analisia era kualitatibo batean egingo da, beraz ez dira zenbakizko baloreak lortuko. Hau baliagarria da topatzeko zaila edo datu faltagatik ezinezkoa den informazioa lortzeko eta zenbakizko zenbaki batzuek zuzenean esan ezin dituzten aspektuak kontutan hartzeko.

Elkarrizketekin jarraitu aurretik, eta orain arteko ikerketa guztia egin ondoren, Donostiako kasuan turismoaren aurrean gerta daitekeen hipotesia planteatuko dut. Nire ustez, hasierako hipotesi bezala, turismoaren aldekotasuna edo aurkakotasuna faktore batzuen esku egongo da era orokortu batean, kostuak autemateko aukeren arabera loturik daudenak. Beraz, turismoaren aldekotasuna edo aurkakotasuna pertsona bizi den auzoaren arabera eta adinaren arabera izango da, honek, zeharkako era batean faktore gehiago biltzen dituelako. Adibide bezala, adinaren faktorea azal daiteke, orokorrean zenbat eta gazteagoa izan, errenta maila baxuagoa izaten da, eta ondorioz, faktore ekonomikoek eragin kaltegarriago bat izan dezakete, prezioen igoerak aukerak murriztea eragin dezakeelako.

Elkarrizketa hauek era erdi estrukturatuan egin dira (klinikoa). Galdera batzuk eraman dira aurrez prestatuta bakoitzarentzat, beraiek parte hartzen duten zatian xehetasun guztiak lortzeko asmoz, eta horiek bidea markatu dute. Hala ere bakoitzak era zabal batean erantzuteko aukera zuen, horrela informazio kopuru ahalik eta handiena lortzeko aukera zabalduz.

Atal honetan beti ere kontutan izango dugu ahozko iturriak subjektibitatearekin loturik egongo daitezkeela, eta beti ere beste iturri batzuetako datuekin konparatzeko, kontrastatzeko eta egiaztatzeko erabiliko dela, hain zuzen ere hurrengo ataleko datuekin konparatzeko. Hauek egiteko arrazoi nagusiak batez ere gure lanaren inguruan informazio baliagarria lortzeko helburua du, pertzepzioaren eta erantzun sozialaren informazioak kriterio eta esparru oso zabalak dituelako. Pertsonen aukeraketa beraien esperientziengatik (asoziazioetan parte hartzeagatik) eta baita jarduera profesionalarengatik informazio baliagarri asko jaso dutelako izan da.

Elkarrizketarako prestatutako galderak batez ere bi talde nagusietan banatu dira, pertzepzioaren aldetik eta Erantzun sozialaren aldetik. Hauen barnean ordea esparru asko ukitu dira, teoriarik aipaturiko faktore ekonomiko, faktore soziokultural eta ingurumeneko faktoreez informazio baliagarria lortzeko. Hau horrela egitearen arrazoia, hurrengo ataleko galdetegian ere eskema bera ibiltzerena izan da, konparaziok atalka egin ahal izateko eta bertatik ondorio zehatzak lortzeko.

### 4.1. Elkarrizketako partaideak

Laugarren ataleko lehen puntu honetan, elkarrizketak izandako partaide bakoitzaren azalpen bat emango da. Hau faktore bakoitzaren gain jasotako informazio

garrantzitsuenaren laburpenaren aurretik egin da beraien gain gehiago jakiteko, horrela hauengan ezagutza zabalduz.

### **Donostia Turismoa**

Donostia Turismoa sozietate anonimo bat izan arren, Donostiako udalak du jabetza osoa, eta beraz, hiri honetako merkataritza-izaera duen sozietate bat da. Honek, 2006 urtean izan zuen sorrera estatutuek onartu ondoren.

Hauen helburua, turismoaren garapen iraunkor bat lortzea da, bere xedean argi agertzen den bezala. Xedea: “Donostiako turismoaren garapen iraunkorra gidatzea, hiriaren nortasuna baliaraztea, helmugako eragileak koordinatzea eta nazioartean posizionatzea, betiere plangintza eta adimen turistikoko ekintzen bidez, helmugaren kudeaketaren bidez, eskaintzaren garapenaren bidez, bisitarientzako arretaren bidez, eta produktuen eta zerbitzuen sustapenaren, komunikazioaren eta merkaturatzearen bidez.”

Hauek guztiak bideratzeko, printzipio batzuk ere jarraitzen ditu. Lehena, pertsona guztiak, bai egoiliarak eta baita bisitariak ere, erdigunean jartzea izango litzateke. Bigarrena, garapen iraunkorra betetzea izango litzateke, xedean ageri den bezala. Honetan, kontzeptuak hartzen dituen zutabeak hartzen dituzte kontutan: kultura, ekonomia, soziala eta ingurumena. Hirugarrena hiriko nortasuna zaintzea izango litzateke, hau da, bertako tradizioak, euskal kultura, gastronomia... Laugarren printzipioa, hiriko izen ona mantentzea izango litzateke, helmuga turistikoko egokia izaten jarraitzeko. Bostgarrena gobernantza da. Honetan, plan estrategiko, harreman, hiritarren parte hartze... bezalakoekin trena egokiak sustatzen dituzte aktore publiko eta pribatu guztiak turismoaren garapen iraunkorra lortzeko. Azken biak, ikuspegi metropolitarra eta eskarirako orientazioa antolatzea izango lirateke.

### **Bizilagunekin elkarte**

Elkarte honen sorrera 2017 urtean izan zen. 2016 urtean Donostiako hiria Europako kultur hiriburua izendatu ondoren, hirian aldaketa bat nabari zuten eta dagoeneko pilatzen ziren arazoak hazkunde bat eman zen pertsona talde batentzat. Horrela, inflexio puntua hori harturik eta turismoa kezka bezala bihurtu ondoren, herritar talde batek topaketa bat antolatu zuen. Topaketak “Ez garelako guiriak gure hirian” izena zuen eta turismoaren arazoei buruz eztabaidatzea zuen helburu. Honetan, irtenbide posibleak, hobekuntzak... proposatu ondoren, amaieran erabaki zen lan horrekin jarraitzea eta ekintzara pasatzera, talde hau sortuz.

Orain arte, diskurtso publikoan eta debate publikoan eragiten ahalegindu dira berain diskurtsoarekin, hau da, desazkunde turistikokoaren ideiarekin. Talde honetako kideak, Donostiarrak dira, hau da, hiriko bizilagunak eta hirian indarrean dagoen turismo ereduak kezkatzen ditu. Eredu honek sortzen dituen ondorioen kezkak partekatzen dituzte, ikuspegi, ideologia eta jardura desberdinetan aritzen diren pertsonak bilduz.

Helburu nagusitzat, ondorengo hirurak dituzte:

- 1– Turismo ereduaren inguruan eztabaida zintzoa, gardena eta irekia eragitea Donostian.
- 2 – Donostiarron bizi-baldintzak hirian garatzen diren estrategia eta jarduera ekonomiko orotan lehentasuna eman beharreko elementu bezala aldarrikatzea.
- 3 – Bestelako hiri eredu baten inguruan indarrak metatzea.

### **Ernai antolakundea**

Ernai, Ezker Abertzaleko gazte antolakunde iraultzailea da, eta Euskal Herri gazte, aske, sozialista, feminista, ekologista eta euskalduna lortzea du helburu. Turismoaren eraginean bakarrik zentratzen ez diren arren, aurretik dagoeneko aipaturik dauden manifestazio zaratatsuetan eragile nagusiak izan ziren. Bertako partaideak, gazteak izanik, turismoak talde honi eta hauen aukerei nola eragiten dien mahaigaineratzea dute helburu, beti ere gai honi loturiko kasuetan noski.

Mugimendu horiek antolatzeko arrazoi nagusia, gazteen aukerak eta nahiak kontutan ez zituztela hatzen hauteman zelako eman ziren. Dagoeneko hirian turismoaren aurkako eztabaida zegoela aprobeztatuz, beraien arazoak argitara eramatea erabaki zuten, horrela arazoa erdigunean kokatuz eta bizi proiektu duinak aurrera eramateko zailtasunak erakutsiz.

## 4.2. Faktore ekonomikoak

Faktore ekonomikoei buruz esandakoa, faktore soziokultural eta ingurumeneko faktoreen inguruan esandakoa bezala, pertsona bakoitzak gai garrantzitsuenez esandakoaren laburpen bat egingo da, horrela gai bakoitzeko ideia ezberdin guztiak jasoz.

Elkarrizketetan etxebizitzaren inguruan ideia ezberdin asko planteatu ziren, bai hauek erosteko prezioaren gain eta baita alokairuko kostuen gain. Donostiako turismo sailarekin hasita, kontutan hartu beharreko alderdi bat dela uste dute, eta horren kontrol bat mantentzeko lan bat egin behar dela. Hala ere, iragarki, sare sozial... bezalako kanpoko inputek, prezio horien gain dagoen pertzepzioan eragin handia duela defendatzen du. Bere esanetan, prezioen igoera bat dagoela ezin da ukatu, baina aldi berean etxebizitza horien garestitzeak ez du turismoak bakarrik eragiten, faktore ezberdin askoren pilaketak baizik. Igoera horietan turismoak duen garrantzia erakutsi nahi dena baxuago dela uste du eta beste faktore asko kanpoan uzten direla dio. Hala ere, honi gehitzeko, len aipaturiko kontrol lanak martxan daudela azaldu zuen. Donostia izan zen erabilera turistikorako etxebizitzak legez mugatzen hasi zen lehen hiria Espainia maila. Hau hobetzen jarraitzeko, lanean ari direla ere azaldu zuen, metrika egokienaren bila, adibidez turismora bideratutako ohe kopurua mila biztanleko bezalakoak.

Bizilagunekin elkartekoek, kasu honen inguruan, erabilitako erregularizazioaren aurka ageri dira. Hartutako neurriak malguegiak zirela defendatzen dute eta soluziorik ez zutela ekarri. Udaletxeren aldetik, arazoari “makilajea” jarri ziotela hiritarrak gustura lagatzeko esan zuen. Urte askotan argi zegoen legedia ez zela errespetatu eta horren



aurrean arazorik ere ez zutela jarri azaltzen zuen. Legedi horretan, etxebizitzetan bigarren pisutik gora aktibitate ekonomikorik aurrera ezin zela eraman zen (salbuespen gutxi batzuekin) eta horiei emandako malgutasunak handiegiak zirela. Honez gain, datuekin ere hitz egin zuen, Donostian turismoak alokairuen prezioan nola eragiten zuten argituz, eta erlazio zuzen bat aurkitzen dela baieztatuz. (Etxezarreta-Etxarri, Izaguirre-Olaizola, Morandeira-Arca eta Mozo-Carollo, 2020). Elenaren ideian, etxebizitza eskubide bat denez, horrelakoekin ezin beharko litzateke negoziarik egin, eta hare gutxiago kaltetuak daudela argi dagoenean. Gai honekin amaitzeko, Ernai antolakundeko Grazi Castañón esandakoa aipatuko da. Bizilagunekin elkartekoek bezala, egindako erregularizazioa malguegia zela iruditzen zaio, eta honi konponbidea emateko interes politiko falta nabaria dagoela uste du. Arazo honek gainera gazteei gehiago eragiten diola argi uzten du, pertsona talde honen aukerak murrizten dituelako.

Hazkunde inguruan Garikoitzek argiak ziren datuak azaldu zituen, batez ere ETA taldearen etenalditik aurrera hazkunde jarrai bat egon dela. Hazkunde hori kontrolatua izan dadin lanak egiten dituztela esan zuen, batez ere hiria promozionatzen ziren lekuak eta moduak aldatuz. Adibidetako bat, “Lowcost” bidai motak saihestea izan zen edota herrialde jakin batzuetan merketu handia izanda ere bertan promozio kanpainarik ez egitea. Hazkunde honen kontrolarekin zuzenean lotuta, Bizilagunekin elkartekoek arazo garbia ikusten dute. Beraien ikuspegiari, udaleko helburu nagusietako bat “hiria garbitzea” izango litzateke. Etortzen diren turistak ekonomikoki ahaltsuak izaten dira, eta horrek hirian bizitzeko kostua igotzen amaitzen du. Azken helburua, hiria errenta altuko pertsonekin betetzea dela diote eta egiten diren ekitaldiak, azpiegitura berriak puntu horretara heltzeko bideratutik daudela. Lehengo atalean Udala turismoak azaldutakoa, orain beste alde honek aurkakoa esan zuen; turismoaren hazkundera positiboa dela jasotzen dutela hiritarrek hedabideetatik (telebista, egunerokoa...) eta horrek asko baldintzatzen dituela hazkunde honen pertzepzioan. Hala ere, egoiliarak dagoeneko konexioak egiten hasi direla uste du Elenak, eta hazkunde jarrai batek arazo batzuen gehikuntza ekarriko diotela konturatzen ari direla. Honek turismoaren etorkizunean arazo bat sor dezake, era jasangarri baten haztea ezinbestekoa bai da. Ernaikoe ere hazkunde jarrai honek bertan bizitzen jarraitu nahi duten Donostiarrak inguruko hirietara mugitzea eragiten dutela defendatzen dute, eta honek batez ere gazteei eragiten diotela, beraien aukerak murrizten direlako. Hazkunderaren puntu nagusiak aztertzean, gazteen ikuspegia eta hauen beharrak ez direla kontutan hartzen dio Garazik, eta era egoki batean jarraitzeko erdigunean hiritarrak jarri behar direla defendatzen du.

Lehen atal honekin amaitzeko, alderdi bakoitzak turismoarekin loturiko lanpostuei buruz esandakoa laburtuko da. Turismoa Donostiaren aldetik, ostalaritzako lan hitzarmena estatu mailan baldintzarik hoberenak dituela jakinarazi zuen. Beraz, sektore bereko lanekin konparatuz gero, turismoaren inguruan sortutako lanpostuak kalitatez baxuak ez zirela zioen. Beste bi alderdiek aldiz bat egiten zuten honen aurka. Lehenik, hitzarmen hori langileek borroka egin zutelako lortu zutela azaldu zuten eta ez zela borondate politiko baten laguntza baten ondorioz gertatu. Bigarrenik, hitzarmen hori egonik ere, lanpostu hauek prekarioak izaten jarraitzen dutela zioten, izan ere baldintza baxuagotan daudenekin konparazioak egiteak ez duelako beti ere errealitatea erakusten. Azkenik eta aurreko punturekin lotuta, lanpostu hauetan lortutako errentekin, hirian bizi

maila duina mantentzea oso zaila dela diote, eta horrek pertsonak inguruko hirietara mugitzera behartzen dituztela, hiria eskusiboa eta klasista bilakatuz.

### 4.3. Faktore soziokulturalak

Faktore soziokulturalekin hasteko, turismoaren gain COVID-19ak jendearen pertzepzioan eraginik izan duen edo ez uste zuten galdetu zitzairen. Atal honetan, aldaketa gutxi batzuk kontuan izanda, ondorio nagusia partekatzen zuten hiru alderdiek. Adibidez, Turismoa Donostiak erabilitako hitza pandemian zehar “hiritarrak ongi jasan zuten” eta beste alderdiek “hiritarrak disfrutatu egin zuten” izan ziren, biak turisten kopurua murrizteari buruz. Hala ere, hirurek pentsatzen dute gaur egungo egoera turisten aurrean lehengo egoera bera dela, eta pertzepzio hau 2019ko mailan aurkitzen dela. Esan daiteke dagoeneko pandemiak hirian eragin zituen aldaketak epe horretan ahaztu egin direla.

Masifikazioaren atala neurtzean, arazo batzuk partekatu ziren, baina hauen gain arazoiketa ezberdina eman zen. Denek bat egin zuten alderdi zaharra edo erdigunea bezalako auzoak askotan jendez beterik egoten zirela, eta batzuetan ibiltzea ere deserosoa izan zezakeela. Donostia turismoak gainera, zaborren kudeaketaren arazoa, zarata handia, kirol guneen falta... bezalako arazoak ere gehitu zituen, baina hau gertatzearen arazoa ere azaldu zuen. Dagoeneko arazoa duen auzo bati, bertako kale estu, antolaketa... bezalako arazoengatik jendearen gehikuntza bat emanez gero, areagotu egiten dira, baina horrek ez du esan nahi arazoa zuzenean turismoaren gain dagoenik. Bestalde, egoiliarak dira baita askotan bertara gerturatzen direnak, izan ere hiriko gune garrantzitsuenetakoak direlako harreman sozialak egiterako orduan, eta horrek turismorik egon gabe ere horrelako egoerak sortzen ditu. Honen aurrean lan bat dagoela ere azaldu zuen Garikoitzek, adibideetako bat autobus turistikoak erdigunetik hauen autobusen geltokira mugituz, turisten kalterako izanik ere, hiriko guneak gutxiago masifikatzeko. Aipaturiko arazoez gain, masifikazio honek dagoeneko aipaturiko gentrifikazio arazoa areagotzen laguntzen duela gehitu zuen Bizilagunekin elkarteko kideak. Masifikazio honek aldi berean hiritarrengan eragin negatiboa ere sor dezake bertakoa sentitzerako orduan. Hiru alderdiek, maila ezberdinetan izan arren, bat egin zuten eragin honetan. Izan ere, taberna batzuk turistengan bakarrik bideratuta izateak edota momentu oro kanpoko hizkuntzak entzuteak bertako komunitateko parte izatearen sentimendua murriztea eragiten duela esan zuten. Espazioek honetan eragin garrantzitsua dute, eta hauek beti turistez beteta ikusteak hiritar batzuetan aldentze bat sorrarazi dezakete.

Euskal Herria bere kultura ezberdina izateagatik ezaguna da eta ez zen gure elkarrizketetatik kanpo geratu zen gai bat izan. Donostia Turismoaren aldetik, faktore positibo eta negatiboak aipatu ziren atal honetan. Hasteko, dagoeneko hiriko identitate diren ekimen batzuk turismoa erakartzeko helburua zuten. Donostiak udaran bakarrik jasotzen zituenez turistak, sasoikotasun gutxiago izateko, estropaden sorrera eraman zuen aurrera hiriak. Honi gehituz, Zinemaldia eta Jazzaldia ere helburu berarekin sorturiko ekimenak direla azaldu zuen Garikoitzek, baina gaur egun Donostiako kulturaren parte direla. Alde positiboekin jarraituz, hiritarrei kultura ezberdinetako pertsonekin erlazionatzeko aukera ematen diola zioen, eta honek egoiliarren aberastasun kulturalerako preziorik ez zuela. Aipaturiko faktore negatiboak bertako jarreraren aldaketa

izango litzateke. Adibide moduan emandakoa, tabernen izenak turistei bideratutakoak izatea eta bertako tradizio batzuen moldaketa izango lirateke, pintxoak plateran ateratzea bezalakoak, kopuru handiagoak saltzeko helburu bakarrarekin. Bestalde, Garazi eta Elenak bat egiten dute gai honi buruz ere. Beraien ikuspegian jaialdi hauek ez daude zuzenean hiritarrei bideratuta. Adibidez, Trinitate plaza horrelako ekintzetako pribatizatzea eta gero beste eskaera batzuen aurrean holakoak debekatzea turismoaren zerbitzura daudela frogatzen duela zioten. Ernaiko kideak arazo bat gehitu zuen atal honetan, festa herrikoiekin loturik. Dagoeneko bi aste nagusi guztiz ezberdinak daudela zioen eta gazteak gustuko duten piraten eguna Anoetara mugitu nahi izatea bezalakoak ez zutela laguntzen bertako kulturaren mantenu egokia egiten.

Azpiegituren inguruan turismoak duen garrantzia aipatzean kontrako ideiak agertu ziren. Garikoitzen esaten zuen modura, turismoak Donostiako BPG-aren ehuneko hamabi inguruko pisua du, eta honek nahi edo ez nahi hiriko azpiegituretako egoeran erlazio zuzena du, hauen mantenua era egokian egin ahal izateko atal garrantzitsua bait da. Gehitzeko, jendeak orokorrean ez dakien atal bat ere badagoela azaldu zigun. Hirian mugimendu konstante hau sortzeak, pertsona ezberdin asko erakartzeko aukera era sortzen du, eta aukera honek mundu mailan ezagunak diren ikertzaileak bertaratzeko arrazoiak sortzen ditu. Honek, azpiegituretan eragina izateaz gain, beharrezkoa den informazioa eta ikerketak aurrera eramateko aukera ere ematen duela defendatuz. Elenak aldiz, eragin zuzenik ez lukeela izango azaltzen zuen, turismora bideraturiko azpiegituretan izatetik hiritarrak beharrezkoak dituzten azpiegituretara pasako zirelako, eta egokitzapen horrek beste helburuak lortzeko balioko luke.

Atal honetako puntu garrantzitsuenetako baten laburpena egingo da orain, tarte handiena aurki dezakeguna. Erantzun sozialaren inguruan esandakoa ondorengoa izan zen. Beste ataletan bezala, Garikoitzek esandakoarekin hasiko da. Bera ados dago pertsonen arazoak mahi gainean jartzearekin eta beraien eskubideak aldarrikatzearekin, baina batzuetan gauzak nola egiten diren jakin behar dela dio. Askotan, beraien lanaren ondorioz lortzen duten eredu guztiz okerra dela automaten dute talde jakin batzuek, baina ez dute beste eredurik proposatzen datuetan oinarria izanik. Proposatzen dituzten aldaketak benetan onuragarriak diren edo ez frogatu beharra dago, ezin bait da horrelako aldaketa handirik egin etorkizunean zer gertatuko den jakin gabe ikusteko. Bestalde, hiritarrei galdeketa ere pasatzen dizkietela dio Garikoitzek, beraien lanaren zati nagusi bat hiritarren iritzia kontutan hartzea bai da, eta horrelako lanak eginda ere dena gaizki egiten dutela jasotzea talde jakin batzuetatik batzuetan zaila dela agertzen du. Berak dakiela, Donostia Turismoarekin elkarlan bat egitera ere ez dira gerturatu inoiz, gai batzuen gain ikuspuntu ezberdinak eztabaidatzeko bezala adibidez. Beti entzuteko prest daudela kontutan hartuta, ondorengoa esango lioke Garikoitzek talde hauei, eztabaida sortzen duten gaiak pixkanaka lantzen joaten dira eta beraien lanaren zati batek turismoak hirian kalterik ez sortzea ere badela. Bizilagunekin elkartetik, erantzun sozial honen arazoia behar baten ondorioz sortzen dela adierazten dute. Behar hori, Donostiarren ongizatea lortzea da, eta hau hiri bizigarri bat bilakatzea, turismoaren gain dependentzia gutxiago izatera helduz. Elenak berak aitortzen zuen batzuetan egiten dituzten diskurtsoak batzuetan erradikalak ematen dutela, baina era erradikal berean agertu zen turismoaren hazkunde hori beraientzat 2016 geroztik, hiritarrek garrantzia galduz. Elenaren ustetan, dagoeneko dauden talde txiki ezberdinak, adibidez metroaren aurka

dauden taldeak, beraien artean konexioak egiten hasiko dira eta turismoaren aurkako erantzun soziala areagotu egingo da, hirian jarraitzeko bizi baldintzak kaskartzen doazen neurrian. Bizilagunekin elkartetik, egia da ez dutela elkar lan bat bilatu zuzenean, beraien helburu nagusia diskurtso publikoan eragitea bait da. Hala ere, elkarlan hori aurrera eramaterakoan bi arazo aurreikusten zituen. Lehena, abiapuntu oso desberdinetatik hasirik, ezinezkoa ikusten du elkarlan bat bideratu ahal izatea. Bigarrenik, udalak beraien hitzari baliorik ez lioketela emango uste dute, eta ez zituztela arazoek bitartekari bezala hautemango. Azkenik, udalari arazo asko daudela aitortzea eskatuko lioke Elenak eta hortik lanean hastea, hazkundearekin jarraitzea beharrezkoa. Amaitzeko, Ernaiko kideak mobilizazioak egitearen arrazoi nagusiak azaldu zituen. 2017 urtean, hirian turismoaren inguruan desilusio bat nabari zuten eta batez ere gazteei bideraturiko kalteak nabariak zirela ikusi zuten. Horrela, momentu egokia zela iruditu zitzaizkien hau egiteko eta gazteen ikuspegia mahai gainean jartzeko, bizi proiektu duin bat sortzeko aukerak murrizten zihoazelako. Honen ondorioz, Garazik batez ere hautemandako pertzepzioa, udalak beraien erantzun sozialak kriminalizatu egiten zituela da. Garazik 2017ko mugimenduetan gertatutakoaren ondoren, leku guztietan talde batek Donostiako turismora bideratutako tren txikietako bat gelditzeagatik kriminalizat hartu zituztela azaldu zigun. Puntu horretatik hasita, eta udalaren jarrera taldeen hitzari balioa kentzea dela ikusirik, elkarlan bat zaila dela uste du. Hala ere, beraien aldetik ideiak eta ikuspuntuak partekatuzera prest egongo lirateke eta eztabaidetan parte hartzeko arazorik ez lukete izango.

Atal honekin amaitzeko jasangarritasunaren inguruan aipatutakoa ikusiko da. Garikoitzek turismoaren testuinguruan hitz berri honen erabilera duela hiru lau urte hasi zela azaldu zuen. Honen hiru zutabe nagusiak ekonomia, soziokulturala eta ingurumena izanik. Batez ere honen helburua, turismoaren kontrola eta promozioaren artean hiritarrak jartzea da, horrela arazoak murriztuz. Horretarako, beraien promozioetan zentratzen dute lana, bertako kulturaren eta jokatzeko moduan ongi eragin dezaketen pertsonetara bideratuz. Bestalde, Elenak turismo jasangarria ez dela existitzen defendatu zuen, arazoak estaltzeko beste hitz berri baten erabilera besterik ez zela azalduz. Lehen pausua atzeraka eman behar dela uste du, eta ez aurreraka jarraitzea balio ez duten eta arazoekin jarraitzea eragiten duten bide berriak zabalduz. Garazirentzat, Donostiako hirian era duin batean bizi ahal izatea izango litzateke benetan jasangarria izatea, bertako hiritarren nahiak eta aukerak kontuan hartuz, eta ez turistenak bakarrik. Egoiliarren erabakien erdigunean kokatu behar direla uste du, eta hiritar hauen iritzia jakitea garrantzitsua dela, horrela arazo asko murriztuz.

#### 4.4. Ingurumeneko faktoreak

Elkarrizketen atala amaitzeko, ingurumenaren inguruan aipatutakoa laburtuko da. Atal honetan, Garikoitz udalak egiten dituen proiektu eta ekintzak azaltzen hasiko da. Bere hitzetan, dagoeneko sektore pribatuak oso kontutan duen alderdia da ingurumena zaintzea eta legerik atera gabe ere hobekuntzak eman direla. Honen adibideetako bat hoteletan aurkitzen ditugun produktuak izango lirateke. Lehen higiene pertsonalerako emandako produktuak (bizar-orri, xaboiak...) askoz ere zabalagoak ziren eta gaur egun hauen kopurua nabarmen murriztu da, ondorioz hondakin gutxiago sortuz. Gehitzeko, turismoko web gunean aurki daitezkeen bezalako ekintzak ari dira aurrera eramaten. Horietatik bi nabarmentzen dira, lehena “Cero plastic” izango litzateke, udarako

alokairuko etxebizitzetzi, hotelei... plastikoen erabileraren murrizketara bideratutako kanpainak egiten direlarik. Bigarrena “xauketarik gabe” programa izango litzateke. Honetan ostalaritzan sortzen diren soberakinak hondakin ez bihurtzea izango litzateke helburu. Ostalariak eta honetan laguntzen duten programak kontaktuan jartzen laguntzen dute, horrela denen onura lortuz. Honetan “To good to go” bezalako aplikazioen erabilera bultzatzen da, hauek galtzear dauden eta bera zaborretara botako diren produktuak prezio murriztu batean saltzea du helburu, horrela bertakoek hauei erabilera emango diote diru gutxiago batean eskuratzen dituzten bitartean. Bestalde, Bizilagunekin elkartekoek neurri eta ekintza hauek positibotzat hartzen dituzten arren, benetan eraginik duten zalantzan jartzen dute. Ingurumenaren zaintzeak adar asko dituela azaltzen zuen Elenak, eta gutxi batzuetan bakarrik finkatzen zirela esaten zuen. Adibidez gune natural batzuen higadura ezin ukatzekoa dela dio, eta naturalki gertatuko litzatekeena baina martxa handiago batean gertatzea sortzen dutela turistek defendatzen zuen. Horren adibide nagusia Santa Klara uhartea izango litzateke, dagoeneko aldaketa nabariak daudelako. Beste adibide bat Martuteneko auzoan egiteko asmoa dagoen Surf-Parka izango litzateke. Honen helburu bakarra turisten beharrak asetzea delarik bertakoek paisaian aldaketa nabariak jasan beharko dituztelako.

## 5. ANALISI KUANTITATIBOA

Bostgarren atal honetan, Donostiako pertsonen turismoaren gain duten pertzepzioa aztertu da. Horretarako, inkesta bat erabili da, EHU-ko IKD egitasmoko aurreko urteetako lanetatik lortua, gero bertako datu numerikoak era kuantitatibo batean aztertu ahal izateko.

Norbanakoek gai baten inguruan duten pertzepzioa aztertu ahal izateko Likert eskala erabili da galdetegian. Ikerketa metodo honen bitartez, pertsonen gai zehatz bati ematen dieten garrantzia, beraien gain eragina duten faktoreak, izan ditzaketen kezka... analiza daitezke, horrela taldeka edo era orokor batean informazioa lortu ahal izateko.

Galdetegiak galdera sorta zabala du, horrela, aztertu behar diren gai guztiak ukitzea lortuz. Likert eskalan, adostasun eta desadostasun mailak neurtzen dira galdetutako gai zehatzetan. Honetan, gai bakoitzaren inguruan galdera anitzeko erantzunak aurkitzen dira ondorengo bost aukerarekin: Guztiz ados, ados, ez ados eta ez desados, desados, guztiz desados.

Lortutako datu guztiak Excel programaren bitartez aztertuko dira. Honen erabilerarekin, pertsonen turismoaren gain duten pertzepzioa aztertzea izango da, eta pertsonan hauen barne, multzo zehatzak egiteko aukera izango da, gai ezberdinek pertsona talde ezberdinetan nola eragiten duten jakiteko.

Aurreko atalean erabilitako eskema berdina erabiliko da, azterketa bibliografikoan ikusi den moduan, hiritarren pertzepzioan gehien eragiten duten faktoreak direlako. Banaketa hau egitearen arrazoia, gero datu guztiak era berdin batean banatuta izateko da, horrela antzekotasuna eta xehetasunak errazago identifikatu ahal izateko.

Lehenik inkestako partehartzaileen artean dauden desberdintasunak ikus ditzagun. Inkesta honetatik ahalik eta informazio gehien lortzeko, aldagai demografikoak hartu dira kontutan, horrela pertsonen iritzien arteko desberdintasunak hautematea ahalbidetzen bait du. Inkestako lagina 161 pertsonakoa da, eta ondorengo taulan ikus dezakegun moduan zabala dela esan daiteke, pertsona talde ezberdin asko izanik. Aipatu beharra dago pertsona batzuek ez dituztela galdera guztiak erantzun, beraz utzik geratu diren galdera jakin horietan, lagina murriztea dago, hauen partaidetza ez delako kontutan hartuko.

1 taula

Inkestetako pertsonen banaketa

Auzoa	Gizon / emakume	Adina	Etxeko diru sarrerak (urteko)
Aiete	5/3	(17-29)= 1	(20.001-40.000)= 2
		(30-45)=3	(40.001-70.000)= 4
		(46-60)= 2	(70.001-100.000)= 2
		(>60)= 2	
Alza	3/7	(17-29)=7	(0-20.000)=4
		(46-60)=2	(20.001-40.000)=4
		(>60)=1	(40.001-70.000)=1
			(Hutsik)= 1
Amara	13/14	(17-29)=8	(0-20.000)=2
		(30-45)=8	(20.001-40.000)=13
		(46-60)=9	(40.001-70.000)=6
		(>60)=2	(70.001-100.000)=4
		(Hutsik)=2	
Antiguo	10/23	(17-29)=8	(0-20.000)= 4
		(30-45)=10	(20.001-40.000)= 14
		(46-60)=10	(40.001-70.000)= 7
		(>60)=5	(70.001-100.000)= 5
		(Hutsik)=3	
Bidebieta	0/3	(17-29)=2	(0-20.000)=1
		(46-60)=1	(20.001-40.000)=1
			(40.001-70.000)=1

Erdialdea	6/4	(17-29)= 7	(0-20.000)= 2
		(30-45)= 2	(20.001-40.000)=3
		(46-60)=1	(40.001-70.000)=4
			(Hutsik)=1
Egia	6/2	(17-29)= 1	(0-20.000)= 2
		(30-45)= 4	(20.001-40.000)= 2
		(46-60)= 1	(40.001-70.000)= 3
		(>60)= 2	(Hutsik)= 1
Gros	8/21	(17-29)= 7	(0-20.000)=5
		(30-45)= 11	(20.001-40.000)=13
		(46-60)= 7	(40.001-70.000)= 4
		(>60)= 4	(70.001-100.000)=2
			(>100.000)=2 (Hutsik)= 3
Ibaeta	0/2	(46-60)= 2	(20.001-40.000)= 1
			(40.001-70.000)= 1
Igueldo	0/1	(30-45)= 1	(40.001-70.000)= 1
Intxaurreondo	3/7	(17-29)= 3	(0-20.000)= 5
		(30-45)= 6	(20.001-40.000)= 2
		(>60)= 1	(40.001-70.000)=2 (Hutsik)= 1
Loiola	1/2	(30-45)= 3	(20.001-40.000)= 2
			(40.001-70.000)= 1
Parte zaharra	8/4	(17-29)= 3	(0-20.000)= 1
		(30-45)= 5	(20.001-40.000)= 4
		(46-60)= 2	(40.001-70.000)= 5



		(>60)= 2	(70.001-100.000)= 1
			(>100.000)= 1
Trintxerpe	1/0	(17-29)=1	(70.001-100.000)=1
Ulia	1/3	(30-45)= 3	(0-20.000)= 1
		(46-60)= 1	(20.001-40.000)= 2
			(70.001-100.000)= 1
<b>Guztira</b>	<b>65/96</b>	<b>(17-29)= 48 (%30)</b>	<b>(0-20.000)= 27</b>
		<b>(30-45)=56 (%35)</b>	<b>(20.001-40.000)=64</b>
		<b>(46-60)= 39 (%24)</b>	<b>(40.001-70.000)= 37</b>
		<b>(&gt;60)= 18 (%11)</b>	<b>(70.001-100.000)=18</b>
			<b>(&gt;100.000)= 3</b>
			<b>(Hutsik)= 12</b>


Iturria: Autoreak egina

Ikus daitekeen bezala, pertsonak talde ezberdinetan banatzeko aukera dago xehetasun ezberdinen artean. Taula honetan agertzen diren datuez gain, pertsonen ikaskuntza mailaren arabera, etxebizitza berdinean bizi diren kopuruaren arabera, partaidetza sentimenduaren arabera eta alderdi politikoaren arabera ere bana ditzakegu. Taulan agertzen diren banaketak erabiliko dira nagusiki lan honetan, baina orain aipaturiko taldeetan ere azterketaren bat egoteko aukera dago. Behin guzti hau aipatuta, datuen azterketarekin hasi daiteke.

Eragile ezberdinak aztertzen hasi aurretik, turismoa orokorrean hiriarentzat positiboa den galdera aztertuko da. Horrela egoiliarrek turismoaren aurrean duten pertzepzio orokorra ezagutzeko aukera dago, xehetasunetan sartu aurretik.

1 Grafikoa

Turismoa hiriarentzat zerbait positiboa da



Iturria: Autoreak egina


1. grafikoan ikusten den bezala, %76 ak, hau da, hiritarren hiru laurdenak baino gehiagok, turismoa orokorrean positibotzat hartzen du. Lehenengo azterketa honen arabera, esan daiteke era zabal batean, Donostiarrek turismoaren inguruan onura gehiago automatikoki dituztela kalteak baino. Hala ere, lan honen helburu bakarra ez da datuak orokorrean aztertzea, aldi berean erantzun sozialak eragin ditzakeen arazoak bilatzea ere badu helburu, honetarako gai ezberdinetan dagoen pertzepzioa aztertuz. Beraz, faktore ekonomiko, faktore soziokultural eta ingurumeneko faktoreak aztertzean, egoiliarrek turismoaren gain duten pentsatzeko era aztertuko da alderdi positibo eta negatibo guztiak bilatuz.

5.1. Alderdi ekonomikoa

Alderdi ekonomikoak aztertzean, hiritarren pertzepzio orokorra jakiteko faktore ekonomikoen inguruan, lehenik aztertutako erantzunak turismoak Donostiako ekonomia hobetzen duen galderarenak dira.

2 Grafikoa

Turismoak Donostiako ekonomia hobetzen du.




Iturria: Autoreak egina

2. grafikoan ikus dezakegunez ados eta guztiz ados daudenen artean %80 izatera heltzen dira. Atal teorikoan azaldu den bezala, faktore ekonomikoak izaten dira batez ere turismoaren alde egiteko arrazoiak eta grafiko honetan argi geratzen da Donostiako hiritarrak hau onuratzat automaten dutela. Gainera 1. grafikoan konparazioa egitean, honetan aldeketasun zertxobait handiagoa nabari daiteke. Dagoeneko faktore ekonomikoen onurak turismoaren pertzepzio orokorraren gaitetik daudela ikusi daiteke, aipatu bezala ekonomia bait da alderdi positiboak bultzatzeko arrazoi nagusia.

### 3 Grafikoa

Turismoak Donostiako ekonomia hobetzen ez duela automaten dutenak urte tarteka.




Iturria: Autoreak egina

Atal berean jarraituz, 3. grafikoan turismoak Donostiako ekonomia hobetzen duen galderan negatiboki erantzun dutenen azterketa egin da. Beraz, hirugarren grafiko honetan, galdera horretan desadoz eta guztiz desadoz daudenen sailkapen bat eginda urte tarteka. Ikusi dezakegunez, pertsona gazteen proportzioa ez da galdetegian dauden kopuru berean mantentzen. Hau aipagarria da, zeren eta gazteek turismoaren gain duten pertzepzioa faktore ekonomikoen aldetik oso positiboa da. Urte tarte bakoitzean erregulartasuna egon zedin, gazteen proportzioa %30 inguru batean mantendu beharko litzateke, baina ikus dezakegunez %6 batean bakarrik geratzen da. Zenbateko hau 30-45 urte tartekoetara transferitzen da, pertsona talde hori izanik %68,5-eko hazkundera duena, eta beraz, ekonomikoki onuratzat hartzen ez duen talde zabalena.

Faktore ekonomikoen azterketa egitean, onura nagusizat lanpostuen sorrera dela azaldu da azterketa bibliografiko bat eta gero alderdi teorikoan. Turismoak sortzen dituen lanpostuen inguruan, hauek kalitatezkotzat automaten diren edo ez ikusten da ondorengo grafikoan (4. grafikoa).

4 Grafikoa

Kalitatezko lanpostuen sorrera




Iturria: Autoreak egina

Kalitatezko zat hitza erabiltzean, pertsona bakoitzak era ezberdinean hartu dezake galdera hau, bakoitzak arrazoi pertsonalak eta beraren pertzepzioaren araberkoa delako. Lan baldintzak, batezbesteko soldata, lanpostu motak... bezalako faktoreak aztertzen dira nagusiki eta ikusi daitekeen bezala, lehenago aztertutako onura ekonomikoen galderan (2. grafikoa), hemengo adostasunaren proportzioak behera egin du. Zehatzak izanda, turismoak sortzen dituen lanpostuak kalitatezkoak diren esaldiaren adostasun maila %53 bat da lehenagoko %80ekin alderatuz. Faktore ekonomikoen onuraren alderdi nagusia eta pertzepzio positiboaren bultzatzaile garrantzitsua lanpostuen sorrera izanik, alde teorikoan azaldu den bezala, dagoeneko hauen kalitatearen gain dagoen pertzepzioa nabari murriztu da orokorreko ideiarekin alderatuz. Atal honetan datu gehiago bilatu nahi izatean, honen gain dagoen pertzepzioa espektro politikoaren arabera ere aztertu da, ezker, zentro eta eskuineko taldeetan banatuz. Gai honetan aurretik diferentziaren bat egon daitekeela pentsa daitekeen arren, erantzunak proportzio berean eman dira izaera politiko guztietan. Beraz, esan genezake atal honetako onurak edo kostuak era orokorrean eragiten dutela aspektu zehatz honetan.

5 Grafikoa

Egoiliarrek turismoarekin duten erlazio ekonomikoa




Iturria: Autoreak egina

Bostgarren grafiko honetan informazioa biltzea izan da helburu. Ikus daitekeenez era batera edo bestera hiritarren ia erdiari eragiten dio turismoak ekonomikoki. Turismoak zuzenki eragiten dietenen proportzioa ehuneko hogeitahamar inguruan kokatzen da. Talde honek beste galderetan positiboago autemateko aukera sortzen du baina lanean zehar ikus daiteken beste grafikoetan, alde batera edo bestera joaten diren joerak orokorrean %30 bateko diferentzia baino handiagoa izaten dute. Beraz hau esanda, esan daiteke hiritarren proportzio nahiko handiak duela zerikusia turismoarekin ekonomiaren aldetik eta hauen pertzepzioak galdera zehatz batzuetan distortsioa zor dezaken arren, hauek ere herritar bezala beraien pertzepzioa ez aztertze zentzurik ez lukeela izango.

Beste faktore batzuk kontutan izatean, ezinbestekoa da Donostiarrek egunerokotasunean kontsumitzen dituzten produktuen azterketa egitean. Ondorengo grafikoan (6. grafikoa), egoiliarrek merkataritzako prezioen igoerak, tabernetako prezioen igoerak eta bertako merkataritxi txikien desagerpenak arazo moduan nola autematen dituzten ikusi daiteke.

6 Grafikoa

Turismoak kontsumoan eragindako arazoak




Iturria: Autoreak egina

Ikusi daitekeenez arazo moduan automatikoki dira orokorrean, baina hiruren artean gutxienez automatikoki den arazo askotan aipatzen den bertako merkataritza txikien desagerpena da. Tabernetako prezioen igoera eta merkataritza guneen igoera faktore negatibotzat hartzen dira, izan ere turistek sortzen duten eskari handitzeak prezioen igoera dakarrelako. Bi faktore jakin horiek, egoiliarren kontsumoan zuzenki eragiten dute, eta beraz, baita beraien egunerokotasunean. Beraz, turismoa orokorrean positiboki automatikoki duten harren, aurreko grafikotik ikusi den bezala, kostu batzuk suposatzen dituela era ikus dezakegu honelako grafikotik, bertako bizi kalitatea murriztuz. Azterketa auzoka egitean desberdintasun txiki batzuk nabari dira. Arazo hau gehien automatikoki dutenak zentroan bizi ez direnak dira, adostasun maila altuagoekin. Zentroa bezala ondorengo auzoak hartu dira kontutan, Antiguoa, Alde zaharra, Erdialdea, Amara eta Gros. Auzo hauek arrazoi ezberdinetatik aukeratu dira, kokapenaren arabera, turismora bideratutako etxebizitzaren kopuruaren arabera (2017ko abuztuaren 30ean Donostiako pisu turistikoaren ordenantza A eta B guneak), turismoa erakartzen duten guneen arabera... Hasiere batean arazo hau gehien pairatzen dutenek bertan bizi direnak izan daitezkeen arren, hogeita lau eta hogeita bost galderei dagokionez, hau da, tabernetako prezioen igoerari eta merkataritza prezioen igoerari dagokionez, zentroan bizi ez direnak arazo hau gehiago automatikoki dute, erantzunetan %11 inguruko adostasun maila handiago batekin hain zuzen ere.

Faktore ekonomikoak pertzepzioaren gain duten eragina aztertzeko, etxebizitzaren inguruko eragileak ikusiko ditugu, hauek baitira nagusiki aurkakotasuna sortzen dutenak. Grafiko honetan (7. grafikoa) Donostiarraren pertzepzioan alokairuko etxebizitzaren eskaintza txikiagoaren eta etxebizitzaren prezioen igoeraren arazoak turismoak nola eragiten duten ikus daiteke.

7 Grafikoa

Turismoaren eragina alokairuko eta etxebizitzaren prezioetan




Iturria: Autoreak egina

Garbi dago herritarrek turismoa eta beraien inguruko etxebizitzaren prezioa zuzenki lotzen dituztela. Beraz, etxebizitzaren eta alokairuen prezioen igoeran eragin dezaketen faktore ezberdin askoren artean, turismoa faktore garrantzitsu bat bezala automatikoki dela esan daiteke. Beste atal batzuetan bezala, hemen ere urte tarte ezberdinetan galdera berdina aztertu dira, baina ez da talderen bat beste talde baten gainera gailendu edo azpitik geratu. Askotan, prezio igoera hauek gehien pairatzen dituen taldea gazteena da, baina kasu honetan, arazo hau kostu bezala automatikoki denez era orokortu batean, hiritar guztien pertzepzioan era berean eragiten duela ikus daiteke. Urte tarte ezberdinetan diferentziarik aurkitu ez den arren, azterketa auzoka egitean desberdintasun txiki batzuk nabari dira. Hemen ere aurreko atalean bezala, hasiera batean arazo gehien pairatzen dutenak bertan bizi direnak izan daitezkeela pentsatu daitezkeen arren, zentroko kale hauetan bizi ez direnak %10eko adostasun maila altuagoak dituzte bertan bizi direnekin alderatuz. Beraz egin daitezkeen irakurketa ondorengoa da. Nahiz eta auzo hauetan prezioak altuagoak izan, hauetan bizi ez direnak arazo handiago bezala automatikoki dute, hiriko gune horietan bizitzeko aukerak murrizten direlako.

Faktore ekonomikoen azterketarekin amaitzeko, gaur egungo turismoaren garrantzia eta honek izan dezakeen hazkundearen gain egoiliarrek zer pentsatzen duten aztertuko da. Horretarako, gaur egun turismoa Donostiako eragile ekonomiko nagusitzat automaten duten galdetu da, eta honek izan beharreko garrantzia etorkizunean. Aldi berean, turismoaren gain hazkunde bat bilatu behar den ere galdetu da, dena aldi berdinean aztertu ahal izateko eta etorkizunean zer nahi duten jakiteko

8 Grafikoa

Turismoa hiriko eragile ekonomiko nagusi izatea



Iturria: Autoreak egina


Ikus daitekeen bezala, turismoa eragile nagusitzat automaten da, baina aldi berean hau etorkizunean geroz eta gehiago bilatzearen aurkakotasun nabari bat ikusten da. Galdera hauen pilaketarekin, kontra esan txiki bat ikusten da. Dagoeneko eragile nagusienetako bat bezala hauteman da, eta honen hazkundearen aldekototasun nabari bat egonda, aldi berean honen garrantzia Donostiako ekonomian murriztea nahi da. Beraz, honen irakurketan atera dezakeguna ondorengoa da, nahiz eta hazkunde baten aldekoa izan eta turismoak indarra hartzen jarraitzea nahi den, beste sektoreetako hazkunde gehiago bultzatu beharra dagoela iruditzen zaie hiritarrei. Horrela pentsatzeko arrazoi ezberdin ugari egon daitezke baina nagusiena turismoaren gain dagoen dependentzia murriztea izango litzateke.



Hiriko eragile ekonomiko nagusi bilakatzearen galdera bakarrik hartuta azterketa ezberdinak egin dira eta horietako batean taldeen artean diferentzia bat nabari dela aurkitu da. Espektrorik politikoaren aldetik begiraturik, adostasun mailaren batezbestekoak baxuagoak dira ezker aldekoak izanik eskuin aldekoak baino.

9 Grafikoa

Turismoa eragile ekonomiko nagusi bilakatzearen azterketa



Iturria: Autoreak egina

Bederatzigarren grafikoan ikus daitekeenez, ezkertiarrak baino batezbesteko maila handiagoa dute eskuinekoek, adostasun maila altuagoa lortuz. Beraz, hurrengo urteetan ematen diren politikak hazkunde hori bilatzera, eta horrenbestez eragile ekonomiko nagusi bilakatzera bideraturik badaude, aurkakotasun bat sorrarazi dezaketen pertsona taldeak ezkertiarrak izan daitezkeela aurreikusi daiteke.


## 5.2. Alderdi soziokulturala

Faktore soziokulturalak aztertzean, batez ere egoiliarrek beraien bizi kalitatean zer aldaketa nabari izan duten bilatzea izan da helburura. Aldaketa hauek, positiboak zein negatiboak izan daitezke, baina gure gaiari loturik, turismoaren jarduerak sorturiko aldaketetan finkatzen da atal hau.

Ondorengo grafikoan ikusi daitezenez (10. grafikoa), Donostiarrek beraien hirian turismoari esker kultur eta aisialdi jarduera gehiago dituzte arabera zer pertzepzio duten ikus dezakegu.

10 Grafikoa

Turismoari esker kultur eta aisialdi jarduera gehiago izatearen pertzepzioa




Iturria: Autoreak egina

Ikus dezakegunez ehuneko haundi baten iritzia baiezkoa da, %61 a hain zuzen ere. Baina lanpostuak kalitatezkoak diren ala ez grafikoan ikusi den bezala, honetan dagoeneko pertsonen laurden bat ez da alde batera edo bestera kokatzen, eta %15 batek ez du horrela automaten. Berez, ikus daitezkeenez, gehiengo bati turismoak aukera ezberdinak sortzen dituela iruditzen zaie, eta honek amaieran aukeren aldetik aberastasuna sortzen du, baina pertzepzio hau ez dago beste atal batzuetan bezain hedatuta.

Alderdi teorikoan azaldu den bezala, faktore soziokulturaletan turismoaren onura nagusienetako bat aberastasuna da, baina ez ekonomikoa, beste kulturekin harremanak edukitzeko aukeragatik baizik. Horretarako, 11 garren grafikoa dugu bertakoek hau benetan onuratzat automaten duten jakiteko edo bestalde garrantzirik gabeko faktore bat bezala automaten duten jakiteko.

11 Grafikoa

Kultur ezberdinekin harremanak




Ikusten dugun moduan, kultur eta aisialdien aukera igotzea baino (10 grafikoa) adostasun handiagoa dago atal honetan. Esan dezakegu, hurrengo grafiko guztiak kontutan hartuta eta informazioa aurreratuz, betez ere alderdi positiboena egoiliarrentzat kultur aberastasun hau jaso izatearen aukera dela. Erantzun honetan ikus daiteke Donostiarrek beraien harremanetarako gaitasunei garrantzia ematen dietela, eta hiriak kultur ezberdinetako pertsonekin kontaktuan jartzeko aukera positibotzat hartzen dutela. Zentroan bizi diren eta ondorioz kontaktua izateko aukera handiagoa duten pertsonetan, adostasun maila handiago bat espero zen zentroan bizi ez direnekin alderatuz, baina ez da diferentziarik nabari.

Onura nagusizat hartzen diren faktoreekin amaitzeko, azpiegituretan duten eragina aztertu da. Hauek aztertzea garrantzitsua da, izan ere azpiegitura egokiak izatea eta hauen mantenuak era egokian egotea denon bizi kalitatean positiboki eragiten du.

12 Grafikoa

Turismoak azpiegituretan duen garrantzia




Iturria: Autoreak egina

Beraz, hamabigarren grafikoa ikus dezakegun bezala, kultur eta aisialdirako jarduera gehiago izatearen maila ai berdinean automatikoki da turismoak azpiegituretan duen garrantzia. Bi eragile positibo hauek, kultur aberastasunaren atzetik geratuko liriteke Donostiarren pertzepzioan, talde nahiko zabal batek, laurdenak baina gehiago, hauek zuzenean turismoarekin lotzen ez dituelako. Horrelako galderetan, batzuetan zuzeneko erlazioa ez badago, alde batera edo bestera jartzen ez diren pertsona kopurua handia da ikus dezakegunez. Kasu honetako arrazoia, Donostiar batzuk azpiegiturak hirikoak direla automatikoki hartzen dituzela, eta ez Turismoarekin zuzenean erlazioa duelako.

Atal honetan, jendeak turismoaren eboluzioan aktiboki parte hartuko lukeen ere aztertu nahi izan da. Horretako galdera sorta ezberdin bat erabili da beraien parte-hartzea beharrezkoa dela uste duten jakiteko.

13 Grafikoa

Turismoaren eboluzioan parte-hartzea




Iturria: Autoreak egina

Grafikoan (13. grafikoa) ikusten den modura, galdera guztietan adostasun maila handiak aurkitzen dira. Aipatzekoa da, pertsonen gehiengoak turismoari buruzko erabaki nagusiak herritarrekin kontsultatu behar direla uste dutela, besteak baino batezbesteko handiago batekin, baina aldi berean parte hartuko luketen kopurua hau baino txikiagoa da. Esan daiteke, gehiengoen ustez turismoaren eboluzioari buruzko faktore nagusiak galdetu beharra daudela, baina aldi berean, esku gutxiagoren menpe utziko lituzketela erabaki horiek hartzen, beraien partaidetza ez luketelako jarriko. Gainera, galdera sorta honetako bigarren batezbesteko altuena lortzen duen galdera, hiriko ekintza eta tradizioen parte hartzea gustatzen zaien pertsonak dira. Dagoeneko hauek aktiboki hartzen dute parte ekintza ezberdinetan, eta horrek ardura bat piztu dezake, baina honetatik etera daiteken irakurketa ondorengoa da, pertsonak hiritarrei turismoaren eboluzioari buruzko erabaki hauek kontsultatzea nahiko luke, baina hauetako batzuk ez dute uste informazio nahikoa dutenik horietan parte hartu ahal izateko era egoki baten.

Atal honetako arazo nagusietan agertzen zen bezala, masifikazioa eta honen eraginak ikus ditzakegu hamalagarren grafikoan. Alde teoriakoan azaldu bezala, gaur egun turismoarekin loturiko eragin kaltegarri handienetako bat da. Hau aztertzeko ere, galdera sorta bat bildu da hiritarrek arazo bezala identifikatzen den jakiteko eta horien iritzia jasotzeko.

14 Grafikoa

Masifikazioaren arazoa




Iturria: Autoreak egina

Ikus dezakegunez (14. grafikoa), masifikazioari loturiko alderdiak arazo bat bezala automaten dira egoiliarren artean. Hau ez da harritzekoa, atal teorikoan azaldu bezala arazo nagusienetako bat da. Masifikazioak sortzen dituen arazoaren artean, ekonomikoak, bertakoen desplazamenduak... bezalakoak ere pilatzen dira, baina horiek beste ataletan aztertu dira eta grafiko honetan alderdi sozial eta egunerokotasunean eragiten duten baldintza batzen irudikapena da. Honetan auzokako azterketa egitean ere diferentzia nabari bat espero zen baina aurkitu dena ez da horrela izan. Egia da zentroan bizi direnek arazo hau automaterako orduan adostasun maila altuagoak dituztela, baina ez dira nabariak izatera irizten, %5eko diferentzia baino gutxiago baitago.

Beste alde bat aztertzen badugu, kulturarekin zerikusi zuzena dutena da. Honetan, positiboki irteten du turismoak, izan ere kultur eta tradizioen jarraipen egokiak kezka sortzen duelako, baina ez da uste hauek turismoari zuzenean bideratuta daudenik.

15 Grafikoa

Turismoak kulturaren duen eragina



Iturria: Autoreak egina


Ikusten den modura (15. grafikoa), turistekin loturiko bi galderetan adostasun maila nabari murrizten da, eta ez ados eta ez desados erantzuna gailentzen da beste grafikoekin alderatuz. Honek ez du esan nahi Donostiarrek turismoaren gain beraien kultur tradizioak kaltetu gabe gelditzen direnik, adostasuneko zenbatekoak desadostasunekoak baina handiago dira eta, baina ez da erantzun orokortu bat beste ataletan ikusi den bezala. Beraz, kontutan izan beharreko gaia dela iruditzen zait, turismoaren etorkizuna era egokian jarraitu ahal izateko, zaindu beharreko ataletako bat hau bait da, beste ataletan bezala hiritarrentzat kostu orokortu bat bilakatu ez dadin. Honetan ere, beste galderetan bezala, erantzun gehiagoren bila azterketa sakonago bat egin da informazio gehiago lortzeko helburuarekin. Galdetegiko hamazortzigarren galderarekin loturiko datuek, hau da, grafikoan tradizioekin era egokian jarraitzea kezkatzen duten datuekin, ez dute ezer berezirik esaten, baina beste bietan aipagarriak diren datuak ikus daitezke. Alde batetik, turismoak gure identitate kulturala gehiago baloratzearen galderan, gazteek era positiboago baten erantzun dute. Turismoak duen eragina gertuago sentiaraz dezaketela esan daiteke, beharbada hau espero litekeen erantzuna da baina informazio baliagarria ematen du konparazioak egin ahal izateko. Espektro politikoaren arabera neurtzean aldiz, diferentziarik espero ez nuen arren, orduan eta eskuinagokoa izan turismoaren eraginez orduan eta gehiago baloratzen dutela bertako identitate kulturala ikus daiteke. Ezkertietatik zentroan kokatzen direnetera batezbestekoa %12 bat igotzen da eta eskuindarrekoak direnekin alderatuz, hauen batezbestekoa %25eko aldea dago. Batezbesteko datuak direla kontuan hartuz eta hauetan desberdintasun hauek nabariak direla aintzat hartuz, turismoaren eraginez identitate kulturalaren balioa eskuinekoek gehiago baloratzen dutela ikus daiteke. Hogeita hamaika galderari loturiko erantzunetan aldiz, hau da, grafikoan kultur eskaintzari loturiko datuekin

loturiko erantzunetan, gazteen taldeak duen batezbestekoa da zenbateko baxuena duen taldea. Datu hau ere ez zen esperotakoa, nire aurreikuspenetan horrelako ekintzetatik desplazaturik gehien sentiarazten ziren pertsona taldea izan zezaketen arren, datu hauek erakusten duten moduan aurkakoa da. Izan ere, ia ekuazio zuzen baten modura, zenbat eta adin handiago izan, orduan eta gehiago automaten da kultur eskaintza turismora gehiago dagoela bideratuta bertako egoiliarrei baino.

Aurreko atalean hazkundearekin ikusitako emaitzarekin lotuta, hiritarrek udalak ematen dituen turismo lizentzietaz zer prentsatzzen duten azter da alderdi soziokulturalen atalean. Horretarako erabilitako galdera ondorengoa da: “Uste dut udalak turismo lizentziak ematea galdatu beharko lukeela”. 16 grafikoan esaldi horren adostasun maila ikusi dezakegu.

16 Grafikoa

Turismo lizentzien iritzia




Iturria: Autoreak egina

Grafiko hau bat dator aurreko atalean aipaturikoarekin. Donostiako eragile ekonomiko nagusia bihurtzea nahi ez dutenez, horretarako banatzen diren turismo lizentzien murrizketa eman behar da. Honek, aurreko atalean aipatu bezala, kontraesan bat erakusten du, hazkunde baten aldekoak diren arren %61ak lizentzien banaketa murriztea komenigarria dela uste du. Auzoka azterketa egitean, etxebizitzaren prezioen eta alokairuko prezioen atalean geratzen zen bezala, honetan ere zentroan bizi ez direnak aurkakotasun maila zertxobait handiagoa dute. Bi gai hauek loturik egonik, han egindako irakurketa berdina egin daiteke hemen, jendeak etxea non erosi edo alokairua non izan aukerak murriztuago dituztela pertzibitu dezakete zentroan bizi ez direnak.

Atal honekin amaitzeko, COVID-19ak turismo saileko egoeraren gain eta hauen helburuetan aldaketarik egin behar duten uste duten aztertu da.

17 Grafikoa

COVID-19aren eragina



Iturria: Autoreak egina

17. grafikoan ikusten den bezala, COVID 19aren ostean, gehiengoek turismoaren gain dauden helburuak eta estrategiak aldatzea komenigarria dela uste dute. Hau zuzenki loturik egon daiteke galdera sorta honetako lehenengo galderarekin, izan ere askok osasun arazoak areagotu ditzakeela uste baitute. Batezbesteko txikienarekin, erakusten den turistaren profilaren galderako emaitzak dira. Desadostasunek ia ez dagoen arren, gehien gailentzen den erantzuna ez ados eta ez desados da, eta honek erakusten duen modura, gaur egun dauden turisten profilarekin arazo handirik ez dago. Lehen aipatu bezala, alderdi hau ere zaindu beharrekoa izango litzateke, honek txarreranzko bidea hartuko balu, beste ataletan eragin handia izan dezakeelako.

### 5.3. Ingurumeneko alderdia


Donostiarrek turismoaren faktore ezberdinen aurrean zer pertzepzio duten jakitea amaitzeko, ingurumeneko alderdia aztertu da. Honetan, turismoak ingurumenean zer alderdi ezberdinetan eragin duen jakitea bilatu da, beti ere egoiliarren ikuspuntutik. Alde teorikoan aipatu bezala, ingurumen-inpaktua dagoela esaten da turismoaren jarduerak aldaketaren bat ekartzen duenean lurraldeko inguruan kontutan izanik.



Alderdi honen azterketarekin hasteko, Donostiarrak zer proportziotan arduratzen diren ingurumenaren iraunkortasunaz ikus dezakegun ondorengo grafikoan (18. grafikoa).

18 Grafikoa

Ingurumenaren iraunkortasuna




Iturria: Autoreak egina

Grafikoan ikusten den modura, proportzio oso altu batean ematen da ingurumenaren iraunkortasuneko arduraren egoera egokia axolaz. Hau bat dator azken urteetan eman diren mugimendu askorekin eta atal honi eman zaion garrantziarekin gure testuinguruan. Beraz, turismoak ingurumenean sor ditzakeen edozein arazok, era orokortu baten eragingo du turismoaren aurreko pertzepzioan.

Hurrengo grafikoan, ingurumeneko iraunkortasuna mantendu ahal izateko garrantzitsuak diren arazo nagusiak Donostiarrak nola automatikoki dituzten ikusten da. (19. grafikoa). Honetan, turismoarekin loturik, hauek ingurumenean izan ditzaketen jokabide gogaikarrien gain pertzepzioa neurtu da. Batez ere zuzenean automatikoki dituzten jarrearen gain, zarata, zikinkeria... bezalakoak.

19 Grafikoa

Ingurumenean eragiten duten arazoak




Iturria: Autoreak egina

Ikusten den bezala, %57ak hauek zuzenean turismoarekin lotzen dizkio, baina beste ataletan ikusitako arazoekin baina proportzio baxuagoa ikusten da, arazo soziokulturaletan batzuetan bezala. Kaleko zikinkeria, kutsadura akustikoa... egunerokotasunean eragin negatiboa sortzen dute, eta era batera edo bestera denok hartzen dugu horren parte. Hala ere, zati batean hau turistekin lotzen dute egoiliarrek eta arazotzat autematen da. Honen hobekuntza bilatzeko, elkarrizketetan aipaturiko kanpainak egongo lirateke, oraindik aztertu ez diren neurri batean eraginkorrak izango liratekeenak. Honetan ere, urte tarteka eta auzokako azterketetan desberdintasun batzuk aurreikuste nituen arren, ez dago inolako diferentziarik talde horien artean.

Atal honekin amaitzeko, etorkizunera begira jendeak gobernuaren aldetik ingurumenaren garrantzia zein izan behar duen aztertu da. Horretarako 20. grafikoan ikus dezakegun bezala, hiru galderen erantzunak erabili dira honekin loturiko aspektu guztiak pilatzeko.

20 Grafikoa

Ingurumena eta Turismoa



Iturria: Autoreak egina

Ikusten den bezala, eta hamazortzigarren grafikoan ikusi den bezala, grafiko honetan (20. grafikoa) Donostiako hiritarrek ingurumenaren zainketari ematen dieten garrantzia argi ikusten da. Bertakoek hazkunde ekonomikoa bat egotea nahi duten arren, lehenik inguruko ingurumenaren zainketa kokatzen dute, eta honen kalterako edozein neurri ezeztekoa nahiago dute irabazi ekonomikoak ekarri ditzakeen arren. Hurrengo urteetako planifikazioan, dagoeneko ikusi dugu COVID-19a bezalako faktoreak kontutan hartu behar direla eta aldi berean, hiritarrek garrantzia ematen diete ingurumenaren zainketari, beraz, gainera pasa ezin den gaitako bat dela argi geratzen da.

## 6. EMAITZEN KONPARAKETA

Atal honetan, aurreko bi puntuetan ikusi denaren konparaketa egingo da, ematen diren antzekotasunak eta desberdintasunak aurkituz. Horrela, turismoaren aurkako mugimendu sozialek esandakoren eta Donostiarrek pentsatzen dutenaren erlazioa jakingo da.

### 6.1. Antzekotasunak

Antzekotasunen puntuan, batez ere, hiritarrek kostutzat automaten dituzten puntuak aurki daitezke. Bai mugimenduen aldetik eta bai hiritarren aldetik adostasun bat aurkitzen den lehen gaia turismoak etxebizitzaren prezioen igoeran duen eragina da. Zazpigarren grafikoan azaldu den bezala, hiritarrek erlazio bat automaten dute etxebizitzaren prezioen igoeran turismoaren aurkako mugimenduek aldarrikatzen duten modu berdinean. Aztertzen ari garen bi alderdiek, arazo hau kostu handienetako bat bezala automaten dute eta beraz, ez da harrizkoa puntu honetan bat egitea.

Era berean, konforme dauden hurrengo puntua ostalaritza eta merkatalgo guneen prezioen igoera izango litzateke. Esan bezala hau ere kostu bezala automaten da hirian, eta mugimenduak turismoaren aurkakoak direnez, hiritarrek onuratzat hartzen ez dituzten puntuetan egiten dute bat.

Masifikazioak sortzen dituen arazoak espero ez zen moduan eragiten duela aztertu dugun arren, hiritarrak era orokortuan arazotzat automaten dute, ondorioz, bi talde hauen artean adostasun batera helduz. Puntu honetan ordea, aipagarria da zuzenki lotzen dugun identitatearekin duen erlazioa. Masifikazio arazo hauek, turismoaren aurkako mugimenduetako partaideek azaldu zuten bezala, Donostiarrek beraien identitatea eta hiriko parte izatea gutxitzen zutela defendatzen zuten. Hala ere, grafikoetan ikusi den moduan, hau ez litzateke horrela ikusiko hiritarren aldetik, aurkako moduan baizik, identitate kultural hori orduan eta gehiago baloratzera eramaten du turismoak. Beraz, masifikazioaren arazoan adostasun bat dagoen arren, honekin batera defendatzen ziren puntu batzuetan guztiz ideia berdina ematen ez dela ikusi da, gai berean antzekotasun eta desberdintasunak aurkituz.

Desazkunde turistikoa bat lortu ahal izateko, Bizilagunekin plataformakoei argi dute turismora bideraturik dauden lizentzien kopurua murriztu egin behar dela. Hiritarrei pasatako galdetegian, banatzen diren lizentziei buruz galdetzen zaie, hau da, etorkizunean emango diren kopuruaren inguruan galdetzen da, Bizilagunekin elkartekoei gaur egun dagoen kopuruari buruz hitz egiten dutenean. Beraz adostasuna zuzenekoa ez den arren, hiritarrei gaur egun dauden kopurua murriztuko luketen edo ez galdetu ez zaielako, antzekotasun puntu bezala hartuko litzateke, egoiliarrek kasu honetan banatuko diren lizentzien murrizketa baten aldekoak direlako.

Azkenik, adostasunean dagoen beste puntua, ingurumena zaintzeari garrantzi handiagoa eman beharra izango litzateke. Donostiarren ikuspuntutik, ehuneko kopuru handiena zuen puntua ingurumenari garrantzia eman beharra da, eta mugimenduen aldetik, honen inguruan egin beharreko lanak gutxi zirela defendatzen zuten.

Ingurumenak jasaten duen narriadura kostutzat bezala automaten da eta inguru hau era egokian mantentzeak garrantzi handia du egoiliarrentzat, bi alderdien adostasun puntu bilakatuz.

## 6.2. Desberdintasunak

Desberdintasunen artean, batez ere hiritarren aldetik kostutzat automaten ez diren puntuak izango lirateke, turismoaren aurkako mugimenduak arazotzat hartzen dituzten bitartean. Lehen puntua, alde teorikoan faktore ekonomikoen bultzatzaile nagusia dena izango litzateke, hau da, lanpostuen sorrera. Sortzen diren lanpostuen kalitatea mugimendu hauek ikuspuntuan jartzen duten gai nagusietako bat izan arren, egoiliarrek hau ez dute kostutzat nabaritzen. Talde hauek lanpostuen sorreran baino hauen kalitatean gehiago finkatzen dira, baldintza kaxkarrak oso orokortuak direla defendatuz. Hala re, grafikoetan ikusi den bezala, hiritarrek hau ez dute horrela pertzibitzen, baizik eta onuratzat automaten dute. Galdera honekin zatozten erantzunetan, batezbesteko altuak ikusten ziren, puntu honetako desadostasuna nabaria izanik.

Hurrengo desberdintasuna hazkundearekin lotua izango litzateke. Bizilagunekin elkartearen helburu nagusia desazkunde bat den bitartean, hiritarren iritzia honi buruz, etorkizunean sektorearen hazkundera bilatzea izango litzateke. Beraz, mugimendu honen helburu nagusiak hiritarren iritziarekin bat egiten ez duela ikus daiteke. Hala ere, aipatzekoa da Donostiarrek ez dutela nahi turismoa eragile ekonomiko nagusia bilakatzea, eta puntu honetan adostasuna dago. Beraz, antzekotasunen puntuan ikusi den bezala, gai berean, adostasun eta desadostasun batzuk aurkitu daitezke.

Desberdintasunekin jarraituz, turismoak azpiegituretan betetzen duen paperaren garrantzia izango litzateke. Turismoaren aurkako mugimenduek turismoak honetan duen garrantzia oso handia ez dela iruditzen zaie, eta beste sektore batzuk bultzatuz, azpiegitura horien egoera behar berriak asetzera bideratuko zela defendatzen zuten, horrela kalitate orokorrak mantenduz. Hala ere, hiritarrek honen gain iritzi ezberdina dute, hauek turismoak azpiegituretan duen garrantzia automaten dutelako. Alde teorikoan ikusi den bezala, eta komunikazio sare ezberdinetan erakusten den bezala, turismoak garrantzia handia du BPG-an eta ondorioz, azpiegituretan. Honek, egoiliarretan iritzia turismoaren aurkako mugimenduek dutenaren ezberdina izatea sortzen du, desadostasun bat gehiago izanez.

Azkenik, atal honekin amaitzeko, kulturarekin erlazionaturiko puntuak egongo lirateke, nagusiki eskaintzarekin lotuak. Bizilagunekin elkartekoek eta Ernai antolakundeko kideek eskaintza kulturala behar baino gehiago turistentzat bideratuta dagoela defendatzen zuten. Donostiako parte diren ekitaldiak, Jazzaldia eta Zinemaldia bezalakoak, gaur egun zuzenki hiritarrei bideraturik ez daudela uste dute. Hau aldiz, ez da horrela ikusten bertakoen partetik. Gaur egun hiriak duen eskaintza bertakoei zuzendua dagoela automaten da. Honek ez du esan nahi turistak erakartzen ez dituenik edota turistak hauek goza ezin ditzaketarik, baina aldi berean ere ez du esan nahi bertakoentzat bideratuta ez daudenik. Laburbilduz, Donostiako hirian dagoen eskaintza egokituz hartzen dute bertakoek eta hauek era egokian jarrai dezatela garrantzi handia du bertakoentzat

## 7. ONDORIOAK

Atal honetan, lanean zehar ateratako ondorio nagusiak bilduko dira, bai atal teorikoari eta baita praktikoari dagozkionak, biak alderatuz. Horrez gain, Gradu Amaierako Lan honetan ikasitakoa eta barneratutakoa aipatuko da. Azkenik, etorkizunera begira gai honekin jarraitzeko har daitezkeen bideak azalduko dira.

### 7.1. Gradu Amaierako Lanari buruzko hausnarketak eta ondorioak

Behin lan hau garatuta, ondorioekin hasteko nire hasierako hipotesiaren kontraste batekin hasiko naiz. Hasiera batean pertsonak bizi ziren auzoaren arabera eta adinaren arabera turismoaren aurreko pertzepzioa ezberdina izan litekeela pentsatzen nuen arren, azterketa eta analisi honen ondorioz, faktoreak hiriari era orokortu batean eragiten diola esan daiteke. Azterketa pertsona talde ezberdin azko kontutan hartuta egin da, adin tarteka, espektro politikoaren arabera, bizi den auzoaren arabera... eta galdera jakin batzuetan joera batzuk ikusten ziren arren, talde horien iritzia ez zen era orokor eta jarrai batean ematen galdera ezberdinen aurrean. Beraz, esan daiteke puntu zehatz batzuetan aldeak nabari daitezen arren, turismoaren aurreko pertzepzioan eragiten duten faktoreek hiritar guztiei era orokortu batean eragiten diotela, eta pertsonatik pertsonara egon daitezkeen aldaketak arrazoi indibidualak direla eta ez direla ideia horiek pertsona talde baten barne egoteagatik ematen. Aldi berean, faktore hauek eragiten dituzten iritzia, positiboak direla esan daiteke, arazoak daudela ukatzea ezinezkoa den arren, automaten diren onurak kostuak baino handiagoak direlako.

Erantzun sozialak jokatzeko duen aldetik, esan beharra dago turismoaren aurkako mugimenduek eztabaidatutako puntu ai guztietan arazoa ikusten zutela, hiritarrek horrela automaten ez zuten arren. Hala ere, honek ez du esan nahi talde hauek betetzen duten papera desagokia denik, turismoaren etorkizunari begira hartzen diren erabakiak eztabaidan jartzeak kontrol handiago bat egotea sorrarazten duelako. Gainera, bizi garen garaian eta kontestuan, edonork du aldarrikatzeko eskubidea eta aukera, mugimendu hauek eskatzen dutena beste edozein ideiak bezala balioa izanez.

Egindako elkarrizketetatik, udaletxearen aldetik turismoak era iraungarri batean jarraitzeko lan talde baten kezka badagoela ikusi da eta aplikatzen diren neurriak gaur egun eraginkorrenak izan ez arren, datuen bitartez ikerketak aurrera eramaten dituzte erabakirik egokienak hartzeko asmoz. Berriz ere, aipatu beharra dago lan hau egiteagatik ere, ez du esan nahi era egokienean egiten denik eta beraz, edozein plan berriren aurrean eztabaida bat egotea egokia dela iruditzen zai, denon onura bilatzen diren puntuak aurkitzeko balioa duelako. Adibide modura, kostuak murrizteko eta onurak handitzeko helburuak aurkitu behar direnean, nire lanean ikusitako puntu batzuekin hastea komenigarria izango litzateke, hiritarren pertzepzio orokorrak aldekatasun batean jarraitzeko. Esaterako, hiriaren identitate kulturala eta soziala ez galtzea tartean aurkitzen

zen gai bat zen, eta hori onuraren aldetik kostuaren aldera ez pasatzeak garrantzitsua izan daitekeela ikusi da. Beste adibideetako bat ingurumenaren zainketa izango litzateke. Emaizetan argi geratu den bezala, hiritarra garrantzi handia ematen diote gai honi, eta askotan faktore ekonomiko eta faktore soziokulturalen atzetik lagatzen den arren, ingurumeneko faktoreak besteak bezalako garrantzia duela ikusi da.

Ondorioekin amaitzeko, baliagarria izango litzatekeen proposamena egin nahi dut. Eragile ezberdinek zaila ikusten duten arren, bai udalaren aldetik eta bai turismoaren aurkako mugimenduen aldetik elkarlan bat sustatzea aberasgarria izango litzatekeela uste dut. Puntu guztietan adostasun batera helduko ez direla aurreikusi daitekeen arren, gai batzuetan ideiak partekatzeak bi alderdiei informazioa emango lieke eta ikuspuntua zabaltzen lagundu, azkenik biek duten helbururantz aurrera pausu bat eginez, hau da, hiritarren bizi kalitatea hobetzea.

## 7.2. Etorkizunari begira

Lan honek dituen limitazioak direla eta, gauzatzeko gogoz geratu zaizkidan hiru bide planteatzen ditut, neuk edo beste norbaitek etorkizunean lana osatzen jarraitu ahal izateko.

Lehen bidea, etorkizunean egin beharreko ikerketa izango litzateke. Turismoaren inguruko plan estrategikoak bost urte inguru izaten dira, eta gaur egun, Donostian, dagoeneko aplikatuko den plan berria prestatzen ari dira. Honetan, Garikotzek esan bezala, iraunkortasunaren garrantziak pisu handiagoa hartu du beste urteetan baino, eta horrek egoiliarren onura ekarri beharko luke. Planteatzen dena ondorengoa da, aztertu den galdetegiaren antzeko bat prestatzea eta aurrera eramatea, horrela Donostiarrek duten pertzepzioa aztertzen jarraitu ahal izateko. Turismoaren plan estrategikoak neurri egokiak hartu baditu, erantzunak hobetu beharko liriateke, faktore guztiak ez izan arren hobetzen ahalegindu direnak behintzat. Horrela, planaren arrakasta eta baliagarritasuna kontutan hartu ahal izango da, eta hurrengo planetan zer hobekuntza egin behar diren informazio baliagarria eskuratuko da.

Beste bideetako bat lan honetan bertan informazio baliagarri gehiago eskuratzeko izango litzateke. Elkarrizketak egiteak denbora nahikoa eskatzen du, eta beraz, hautatutako taldeak ikerketan eragile baliagarri eta zuzenak direnak izan dira. Haez gain, ordea, beste talde mota batzuk ere aurki daitezke Donostian, mugimendu ezberdinak sortzen dituztenak, metroaren aurka daudenak adibidez. Talde horiek zuzenean turismoaren aurkako mugimenduak egiten ez dituzten arren, metroaren eraikuntza turismoarekin zein neurritan lotzen duten jakitea baliagarria izango litzateke, eta ondorioz, turismoaren aurkako pertzepzioa areagotu egin den jakiteak informazio gehiago emango luke.

Azkenik, planteatzen den hirugarren aukerak horrelako lan oso bat egiteko balioko luke. Hirugarren atalean ikusi den bezala, hiri bakoitzean eragile jakin batzuk

oso garrantzitsuak dira turismoaren egoera era egokian aurrera eraman ahal izateko. Berlineko kasuan hiri handia izateak ematen zion abantaila bezala edota Veneziako kasuan bezala, hiriaren egoera zela eta, ingurumeneko faktoreak pisu handia zutela. Planteatzen dena ondorengoa da, indikatzailerak ezberdinak erabiliz, hiriak jasan dezakeen karga eta antzekoak bezala, Donostiako hirian garrantzi gehien duten aspektuak bilatzea. Honek, etorkizunean egingo diren turismoko plan estrategikoetan ezinbesteko informazioa emango luke, inondik inora kontrolik gabe utzi daitezkeen aspektuak zein diren jakingo litzateke.

# BIBLIOGRAFIA:

---

- Aguiló, E., Barros, V., García, M. A., & Rosselló, J. (2004). *Las actitudes de los residentes en Baleares frente al turismo. Turisme i Investigació n° 7*. Palma de Mallorca: Universitat de les Illes Balears.
- Alcalde, J, Guitart, N, Pitarch, & Vallvé, O(2018). *De la turismofobia a la convivencia turística: el caso de Barcelona. Análisis comparativo con Ámsterdam y Berlín*. Barcelona, Campus del turismo
- Amer, J (2009). *Los debates sobre la percepción social del turismo en las islas baleares*. Palma de mallorca, universidad de las Islas Baleares
- Andereck, K. L., Valentine, K. M., Knoff, R. C., & Vogt, C. A. (2005). *Residents "perceptions of community tourism impact"*. Annals of Tourism Research (32.4, 1056-1076)
- Barbacci, N (2018). *Socio-cultural effects of tourism in historic cities: the cases of Venice, Cusco and Mexico City*. Alcance, 7(16), 24-48.
- Besculides, A., Lee, M., & McCormick, P. (2002). *Resident's perceptions of the cultural benefits of tourism*. Annals of Tourism Research (29.2, 303-319).
- Bigné, J. E., Font, X., & Andreu, L. (2000). *Marketing de destinos turísticos. Análisis y estrategias de desarrollo*. Madrid: Editorial ESIC.
- Blazquez, M (2008). *Las «moratorias» Baleares*. Bartzelona, Icaria editorial.
- Cardona (2012). *Actitudes de los Residentes hacia el Turismo en Destinos Turísticos Consolidados: El Caso de Ibiza*. (130-133).
- Datos Macro (2022). *España - Turismo internacional* . [2022/04/22] Hemen eskuratua: <https://datosmacro.expansion.com/comercio/turismo-internacional/espana#:~:text=En%20el%20ranking%20de%20turismo,%2C%20un%2064%2C69%25>.
- El País (2017). *Los radicales Vascos anuncian una campaña contra el turismo en San Sebastian*. [2022/05/12] Hemen eskuratua: [https://elpais.com/politica/2017/08/03/actualidad/1501747876\\_014328.html](https://elpais.com/politica/2017/08/03/actualidad/1501747876_014328.html)
- El periódico (2017). *San Sebastian, dividida ante el turismo*. [2022/05/12] Hemen eskuratua: <https://www.elperiodico.com/es/sociedad/20170807/debate-localidades-turisticas-vascas-equilibrio-masificacion-6212621>
- Estatista (2020). *Evolución de la aportación del sector turístico al PIB en el mundo*. [2022/04/21] Hemen eskuratua:



<https://es.statista.com/estadisticas/640133/aportacion-del-sector-turistico-al-pib-mundial/>

- Erik Cohen (2004). *Major trends in contemporary tourism*. Department of Sociology and Anthropology. The Hebrew University of Jerusalem
- Eustat (2020). *Aportación del turismo a la economía vasca por territorio histórico y año. Valor absoluto y porcentaje sobre el PIB p.m. Precios corrientes. 2010-2020*. [2022/04/22] Hemen eskuratua:  
[https://www.eustat.eus/elementos/ele0003400/aportacion-del-turismo-a-la-economia-vasca-por-territorio-historico-y-ano-valor-absoluto-y-porcentaje-sobre-el-pib-pm-precios-corrientes/tbl0003419\\_c.html](https://www.eustat.eus/elementos/ele0003400/aportacion-del-turismo-a-la-economia-vasca-por-territorio-historico-y-ano-valor-absoluto-y-porcentaje-sobre-el-pib-pm-precios-corrientes/tbl0003419_c.html)
- Eustat (2021). *Euskal Eako turismo gastua ekonomiari egindako ekarpena lurralde historikoaren arabera. BPGren ehunekoa. 2015 oinarria*. [2022/04/22] Hemen eskuratua:  
[https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema\\_140/opt\\_1/ti\\_turismoaren-kontu-satelitea/temas.html](https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_140/opt_1/ti_turismoaren-kontu-satelitea/temas.html)
- EUSTAT (2022). *Entradas, pernoctaciones, estancia medi y grados de ocupacion en establecimientos hoteleros*. [2022/04/24] Hemen eskuratua:  
[https://www.eustat.eus/elementos/ele0011300/entradas-pernoctaciones-estancia-media-y-grados-de-ocupacion-en-establecimientos-hoteleros-de-la-ca-de-euskadi-por-origen-y-zona-geografica/tbl0011321\\_c.html](https://www.eustat.eus/elementos/ele0011300/entradas-pernoctaciones-estancia-media-y-grados-de-ocupacion-en-establecimientos-hoteleros-de-la-ca-de-euskadi-por-origen-y-zona-geografica/tbl0011321_c.html)
- Etxezarreta-Etxarri, Izagirre-Olaizola, Morandeira-Arca & Mozo-Carollo. (2020). Urban touristification in Spanish cities: consequences for the rental- housing sector in San Sebastian, *Economic Research-Ekonomiska Istraživanja*, 33:1, 1294-1310, DOI: 10.1080/1331677X.2020.1755878
- Flick, U. (2012). *Introducción a la investigación cualitativa*. Madrid, España: Ediciones Morata
- Fridgen, J. D. (1991). *Dimensions of Tourism*. East Lansing MI: The Educational Institute of the American Hotel and Motel Association.
- Hunter, C., & Green, H. (1995). *Tourism and the Environment. A Sustainable relationship?* London: Routledge.
- INE (2020). *Aportacion del turismo al PIB de la economía española por valor absoluto/porcentaje/indice, tipo de indicador y periodo*. [2022/04/22] Hemen eskuratua:  
<https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?tpx=33434>
- INE (2022). *Movimiento turístico en fronteras 2022*. [2022/04/24] Hemen eskuratua:  
[https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica\\_C&cid=1254736176996&menu=ultiDatos&idp=1254735576863](https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176996&menu=ultiDatos&idp=1254735576863)

- INE (2022). *Encuesta de ocupación hotelera, Donostia/San Sebastián*. [2022/04/27] Hemen eskuratua:  
<https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=2078#!tabs-grafico>
- La moncloa (2022). *España, entre los destinos del mundo turísticos más deseados en Semana Santa*. [2022/04/27] Hemen eskuratua:  
<https://www.lamoncloa.gob.es/serviciosdeprensa/notasprensa/industria/Paginas/2022/010422>
- Long, P. T., Perdue, R.R., & Allen, L. (1990). *Rural resident tourism perceptions and attitudes Referencias. 520 by community level of tourism*. Journal of Travel Research (28.3, 3-9).
- Novy, J (2017). *Protest and resistance in the tourist city*. London: Routledge.
- OMT (1998). *Introducción al turismo*. Madrid: Organización Mundial del Turismo.
- OMT (2020). *Panorama OMT de Turismo Internacional, años actualizados 2015-2017, 2018, 2019 y 2020*. [2022/04/22] Hemen eskuratua:  
<https://www.unwto.org/es/taxonomy/term/347>
- Pizam, A. (1978). *Tourism's impacts: the social costs to the destination community as perceived by its residents*. Journal of Travel Research, (16.4, 8-12)
- UNTO (2022). *Glosario de términos de turismo*. [2022/04/21] Hemen eskuratua:  
<https://www.unwto.org/es/glosario-terminos-turisticos>
- UNWTO (2021). *El turismo inicia 2022 fuerte, mientras se enfrenta a nuevas incertidumbres*. [2022/04/21] Hemen eskuratua:  
<https://www.unwto.org/es/taxonomy/term/347#:~:text=Seg%C3%BAAn%20los%20C3%BAltimos%20datos%20disponibles,total%20registrado%20en%20todo%202021>.
- Virgos, R (2020). *Cruceros en Venecia. Conflictos y alternativas urbanas y ambientales*.
- Visit-Bizi (2021). *Nuestra calidad de vida es el punto de partida*. [2022/04/27] Hemen eskuratua:  
[https://press.sansebastianturismoa.eus/images/prensa\\_agentes/pdf/Visit-Bizi\\_Memoria\\_completo\\_Cast.pdf](https://press.sansebastianturismoa.eus/images/prensa_agentes/pdf/Visit-Bizi_Memoria_completo_Cast.pdf)
- Williams, J., & Lawson, R. (2001). *Community issues and resident opinions of tourism*. Annals of Tourism Research (28.2, 269-290)

## ERANSKINAK:

### 1. GALDETEGIA

**El presente cuestionario forma parte de la elaboración de un Trabajo de Fin de Grado de la Facultad de Economía y Empresa (sección Gipuzkoa) de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) en el marco de la realización de un proyecto de investigación sobre turismo urbano. Agradeceríamos su colaboración, ya que es muy importante para el estudio.**

#### **P1.- Valore de 1 al 5 su nivel de acuerdo con las siguientes frases acerca del turismo en Donostia**

		<i>Nada de acuerdo    Muy de acuerdo</i>				
El turismo es algo positivo para la ciudad	v1	1	2	3	4	5
El turismo mejora la economía de Donostia	v2	1	2	3	4	5
El turismo es el principal impulsor económico de San Sebastián	v3	1	2	3	4	5
El turismo genera oportunidades de empleo de calidad en la ciudad	v4	1	2	3	4	5
Gracias al turismo hay más actividades culturales y de ocio en la ciudad	v5	1	2	3	4	5
El turismo supone una oportunidad de contacto entre culturas	v6	1	2	3	4	5
El turismo me beneficia económicamente	v7	1	2	3	4	5
Yo o mi familia trabajamos u obtenemos rentas de sectores relacionados con el turismo	v8	1	2	3	4	5
Que desaparezca el turismo afectaría de manera directa a mi economía	v9	1	2	3	4	5
El turismo contribuye en la calidad de vida de la población local	v10	1	2	3	4	5
El turismo nos hace valorar más nuestra identidad cultural	v11	1	2	3	4	5
El turismo hace que mejore las infraestructuras urbanas	v12	1	2	3	4	5

#### **P2.- Valore de 1 al 5 su nivel de acuerdo con las siguientes afirmaciones personales**

		<i>Nada de acuerdo    Muy de acuerdo</i>				
Me siento Donostiarra	v13	1	2	3	4	5
Tengo un vínculo emocional con Donostia. Siento aprecio por la ciudad	v14	1	2	3	4	5
Prefiero vivir en Donostia antes que en cualquier otro lugar	v15	1	2	3	4	5
Me gusta participar en actividades y tradiciones de la ciudad	v16	1	2	3	4	5
Me preocupa el futuro económico de Donostia	v17	1	2	3	4	5
Me preocupa el mantenimiento de las tradiciones de Donostia	v18	1	2	3	4	5
Me preocupa la convivencia en la ciudad	v19	1	2	3	4	5
Me intereso por las decisiones estratégicas de turismo de la ciudad	v20	1	2	3	4	5
Me gustaría participar en la toma de decisiones sobre el turismo	v21	1	2	3	4	5
Creo que las decisiones clave sobre turismo deberían consultarse a la ciudadanía	v22	1	2	3	4	5

**P3.- Indique si está de acuerdo en que el turismo genera los siguientes problemas a Donostia**

		<i>Nada de acuerdo</i> <i>Muy de acuerdo</i>				
Pérdida de pequeño comercio tradicional	v23	1	2	3	4	5
Aumento de los precios en bares y restaurantes	v24	1	2	3	4	5
Aumento de precios en comercio	v25	1	2	3	4	5
Menor oferta de vivienda en alquiler	v26	1	2	3	4	5
Aumento de precios de la vivienda	v27	1	2	3	4	5
Problemas de tráfico y aparcamiento	v28	1	2	3	4	5
Aglomeraciones de gente por la calle	v29	1	2	3	4	5
Ocupación de la calle para terrazas, expositores de tiendas...	v30	1	2	3	4	5
Oferta cultural orientada al turismo más que a ciudadanía local	v31	1	2	3	4	5
Comportamientos molestos (ruido, suciedad...)	v32	1	2	3	4	5
Zonas de ocio en las que el turismo ha desplazado a la población local	v33	1	2	3	4	5

**P4.- Indique su grado de acuerdo con las siguientes afirmaciones acerca de la sostenibilidad**

		<i>Nada de acuerdo</i> <i>Muy de acuerdo</i>				
Creo que el crecimiento económico debe estar supeditado al cuidado del medio ambiente	v34	1	2	3	4	5
Me preocupa la sostenibilidad ambiental	v35	1	2	3	4	5
El cuidado del medio ambiente debería ser un eje principal al planificar el turismo de la ciudad	v36	1	2	3	4	5
El auge del turismo puede traer importantes problemas ambientales	v37	1	2	3	4	5

**P5.- Indique su grado de acuerdo con las siguientes afirmaciones acerca del impacto del turismo**

		<i>Nada de acuerdo</i> <i>Muy de acuerdo</i>				
Creo que las empresas del sector turístico deberían esforzarse en generar beneficios para la comunidad (empleos de calidad...)	v38	1	2	3	4	5
Debería apostarse por un turismo que no altere la comunidad local	v39	1	2	3	4	5
Hay que regular el turismo para que tenga un impacto positivo sobre la comunidad	v40	1	2	3	4	5
Debería ponerse en marcha una tasa turística destinada al desarrollo local	v41	1	2	3	4	5

**P6.- Valore de 1 al 5 su nivel de acuerdo con las siguientes frases acerca del turismo y la COVID-19**

		<i>Nada de acuerdo</i> <i>Muy de acuerdo</i>				
Mis ingresos han bajado por la caída del turismo en época de la COVID-19	v42	1	2	3	4	5
Creo que el impacto de la COVID-19 sobre el turismo es enorme	v43	1	2	3	4	5
Creo que pasará mucho tiempo hasta volver a niveles de turismo anteriores a la pandemia	v44	1	2	3	4	5
Se deberían de haber aplicado más medidas sanitarias a los turistas (tests obligatorios)	v45	1	2	3	4	5
Siento que las normas Covid son más flexibles con los turistas	v46	1	2	3	4	5
Creo que el turismo puede acentuar los problemas sanitarios	v47					

**P7.- Valore su nivel de acuerdo con las siguientes frases acerca del futuro del turismo en Donostia**

		<i>Nada de acuerdo</i>					<i>Muy de acuerdo</i>				
Me gusta que vengan turistas a Donostia	v48	1	2	3	4	5					
Hay margen para que crezca el turismo en Donostia	v49	1	2	3	4	5					
El ayuntamiento debería tratar de atraer más turistas	v50	1	2	3	4	5					
Debemos adaptar la planificación de la ciudad a las necesidades del turismo	v51	1	2	3	4	5					
Las autoridades deben apostar por hacer crecer el turismo lo máximo posible	v52	1	2	3	4	5					
El turismo debería ser impulsado como el principal motor económico de la ciudad	v53	1	2	3	4	5					
Apoyo firmemente el desarrollo del turismo	v54	1	2	3	4	5					
Tras la COVID-19 debería replantearse la estrategia turística de Donostia	v55	1	2	3	4	5					
Tras la COVID-19 debería replantearse los objetivos turísticos de Donostia	v56	1	2	3	4	5					
Tras la COVID-19 debería replantearse el perfil del turista de Donostia	v57	1	2	3	4	5					

**P8.- Indique si está de acuerdo con las siguientes afirmaciones acerca de la gestión de la ciudad y el turismo por parte del Ayuntamiento y otras instituciones públicas**

		<i>Nada de acuerdo</i>					<i>Muy de acuerdo</i>				
Habría que preguntar a la ciudadanía acerca de la estrategia turística de la ciudad	v58	1	2	3	4	5					
Hoy en día se piensa más en el turismo que en la ciudadanía local	v59	1	2	3	4	5					
Se debería derivar el turismo a zonas menos masificadas	v60	1	2	3	4	5					
Estoy a favor de la implantación de una tasa turística en Donostia	v61	1	2	3	4	5					
Estoy a favor de la imagen de la ciudad que se traslada en las campañas publicitarias	v62	1	2	3	4	5					
Se debería promover campañas menos centradas en la gastronomía	v63	1	2	3	4	5					
Se deberían atraer más ferias y congresos profesionales	v64	1	2	3	4	5					
Se debería atraer más programa cultural, teatro, conciertos...	v65	1	2	3	4	5					
Se debería evitar el tráfico en la zona centro, peatonalizar	v66	1	2	3	4	5					
Creo que el ayuntamiento debería frenar la concesión de licencias Turísticas	v67	1	2	3	4	5					

Sexo	v68	Mujer 1	Hombre 2								
Nivel de estudios	v69	Sin estudios/primarios 1	Secundaria/FP 2	Universitarios/superiores 3							
Barrio de residencia	v70										
Edad	v71										
Num. Miembros hogar	v72	1	2	3	4	5	6	7	o más.		
Renta familiar (bruta anual)	v73	0-20.000 100.000 1	20.001-40.000 >100.000 2	40.001-70.000 3	70.001- 4	5					
Senti - miento de pertenencia	v74	Solamente vasco/a	Más vasco/a que español/a	Tan vasco/a como español/a	Más español/a que vasco/a	Solamente español/a	1	2	3	4	5
Espectro político	v75	Izquierda 1	2	3	4	5	Centro 6	7	8	Derecha 9	10

## 2. ELKARRIZKETAK

### Donostiako Turismo Bulegoa

Donostiako biztanleen pertzepzioari, erantzun sozialari eta jasangarritasunari buruzko galderak egingo dira.

#### **Pertzepzioa:**

- 1-Udaletxearen ikuspuntutik, hiritarrek orokorrean duten jarrera turismoaren aurrean, positiboa edo negatiboa dela iruditzen zaizue?
- 2-COVID-19 ak eraginik izan duela uste duzue pertzepzio horren aurrean, hau da, orain aldeko edo aurkako pertzepzio handiagoa automaten duzue?
- 3-Sektore turistikoak oraindik hazteko marjina duela iruditzen zaizu Donostiako kasuan?
- 4-Zein arrazoi izan ditzakete sektorearekiko aurkako pentsamendua duten hiritarrek pentsamendu hori izateko?
- 5-Zure ustez, etxebizitzaren prezioen igoera arazo garrantzitsu bat bilakatzen ari da?
- 6-Turismoaren hazkundera dela eta, zein uste duzue dela auzorik kaltetuena?
- 7-Turismoak sortzen dituen lanpostuak, kalitate baxukoak izaten amaitzen dutela esaten da. Horren aurrean zer uste duzue eta zer aldaketa proposa daiteke?
- 8-Turismoaren erregularizazio ezberdinak entzuten dira maiz, hala nola, tasak, maximoak, etab. Horrelakoren bat planteatu da inoiz?
- 9-Donostiako eta Euskal Herriko kulturaren aurrean, turismoa positiboa edo kaltegarria dela iruditzen zaizu? Zergatik?
- 10-Sektore turistikoak behar bada bat pairatuz gero, hiriko azpiegituretan aldaketarik nabariko litzatekeela uste duzue?

#### **Jasangarritasuna:**

- 1-Turismoaren ardatzetako bat jasangarritasuna izan behar duela uste duzue?
- 2-Turismo jasangarria lortzeko herritarren iritzia eta pertzepzioa garrantzitsua dela uste duzue?
- 3-Uste duzue Donostiako herritarrak turismo jasangarri baten beharrenean jabe direla eta orokorrean hura lortzeko egiten dutela?
- 4-Uste duzue Donostiako turismoa jasangarria dela edo oraindik lan handia geratzen da hara iristeko?
- 5-Donostiako turismoa jasangarriago izateko zein ekintza ari zarete garatzen?

#### **Erantzun soziala:**

- 1-2017 urteko udaran, manifestazioak egon ziren turismoaren aurka. Horietan aldarrikatzen zena hiriarentzat onuragarria edo kaltegarria zela iruditzen zaizu?
- 2-BiziLagun Ekin elkarteak, Donostia mailan indarra duena, batez ere etxebizitzaren inguruan eta sektorearen desazkunde batean zentratzen da. Hauek eskatzen dutena onuragarria edo kaltegarria dela uste duzue?
- 3-Horrelako mugimenduen aurrean, zein da zuen jarrera?
- 4-Etorkizunean horrelako talde edo mugimendu gehiago espero dituzue?
- 5-Dagoeneko egin al duzue aldaketarik mugimendu hauen eskaerak asetzeko?
- 6-Mugimendu hauetan parte hartzen duten pertsonak, jarrera antzeko bat izaten al dute?
- 7-Amaitzeko, turismoaren aurkako mugimenduetan parte hartzen duten pertsonak, zer esango zenieke?

## BizilagunEkin

### **Pertzepzioa:**

- 1-Azaldu dezakezue labor nortzuk zareten eta zein modelo turistikoa defendatzen duzuen?
- 2-Era orokor batean hasteko, zuen ustez Donostiako hiritarrek zer pertzepzio dute turismoarekiko?
- 3-COVID-19a eta gero, pertzepzio hori zerbait aldatu dela esango zenuke? Pandemia garaian sektoreak izan duen beherakadaren ondorioz.
- 4-Turismoaren sektorea oraindik hazkunde prozesu batean dagoela iruditzen zaizu Donostiako kasuan?
- 5-Turismoaren hazkundera dela eta, zein uste duzu dela arazorik handiena?
- 6-Turismoaren hazkundera dela eta, zein uste duzu dela auzorik kaltetuena?
- 7-Zure ustez, etxebizitzaren prezioen igoera arazo garrantzitsu bat bilakatzen ari da? Eta uste duzu turismoa dela prezioen igoera horien eragile nagusia? Zergatik?
- 8-Turismoaren erregularizazio ezberdinak entzuten dira maiz, hala nola, tasak, maximoak, etab. Horrelakoren bat ezarri gero, onuratzat hartuko zenuke?
- 9-Turismoak sortzen dituen lanpostuak, kalitate baxukoak izaten amaitzen dutela esaten da. Horren aurrean zer uste duzu eta zer aldaketa proposa daiteke?
- 10-Donostiako eta Euskal Herriko kulturaren aurrean, turismoa positiboa edo kaltegarria dela iruditzen zaizu? Hemengo kulturaren eragina duela esan daiteke? Zergatik?
- 11-Etortzen diren turistak hemengo kulturaren murgiltzen direla esan daiteke?
- 12-Sektore turistikoa beherakada bat pairatu ez gero, hiriko azpiegiturretan aldaketarik nabariko litzatekeela uste duzu?
- 13-Masifikazioek hiritarrak batzuetan donostiarrak ez sentitzea sor dezaketela uste duzu?
- 14-Inoiz elkarlanean aritu al zarete Udaletxearekin edo saiatu al zarete?

### **Jasangarritasuna:**

- 1-Turismoaren ardatzetako bat jasangarritasuna (ekonomikoa, sozio-kulturala eta ingurumenekoa) izan behar duela uste duzu?
- 2-Turismo jasangarria lortzeko herritarren iritzia eta pertzepzioa garrantzitsua dela uste duzu?
- 3-Uste duzu udaletxeak ahalegin nahikoak egiten dituela hiritarren pertzepzioak ulertu eta kontuan hartzeko?
- 4-Uste duzu Donostiako turismoa jasangarria dela edo oraindik lan handia geratzen da hara iristeko?
- 5-Donostiako turismoa jasangarriago izateko zein ekintza ari zarete garatzen?

### **Erantzun soziala:**

- 1-2017 urteko udaran, manifestazioak egon ziren turismoaren aurka. Horietan zer aldarrikatzen zen zehazki?
- 2-Bizilagun Ekin elkarteak, zer eskaera egiten ditu zehazki?
- 3-Zuen mugimenduen aurrean, zein da udalaren jarrera? Eta hiritarrena?
- 4-Etorkizunean mugimendu gehiago sortzea espero dituzue, edota zuena hazten jarraitzea?
- 5-Egindako aldarrikapen eta eskaeren ondorioz, aldaketarik nabari duzue hirian?
- 6-Amaitzeko, udaletxeko turismo sailari zerbait esateko aukera izan ez gero, zer izango litzateke? Eta Donostiako hiritar guztiak entzuten egon ez gero, zer esango zenuke?



## Ernai

### **Pertzepzioa:**

- 1-Azaldu dezakezue labor nortzuk zareten eta zein modelo turistiko defendatzen duzuen?
- 2-Era orokor batean hasteko, zuen ustez Donostiako hiritarrek zer pertzepzio dute turismoarekiko?
- 3-COVID-19a eta gero, pertzepzio hori zerbait aldatu dela esango zenuke? Pandemia garaian sektoreak izan duen beherakadaren ondorioz.
- 4-Turismoaren sektorea oraindik hazkunde prozesu batean dagoela iruditzen zaizu Donostiako kasuan?
- 5-Turismoaren hazkundera dela eta, zein uste duzu dela arazorik handiena?
- 6-Turismoaren hazkundera dela eta, zein uste duzu dela auzorik kaltetuena?
- 7-Zure ustez, etxebizitzaren prezioen igoera arazo garrantzitsu bat bilakatzen ari da? Eta uste duzu turismoa dela prezioen igoera horien eragile nagusia? Zergatik?
- 8-Turismoaren erregularizazio ezberdinak entzuten dira maiz, hala nola, tasak, maximoak, etab. Horrelakoren bat ezarri gero, onuratzat hartuko zenuke?
- 9-Turismoak sortzen dituen lanpostuak, kalitate baxukoak izaten amaitzen dutela esaten da. Horren aurrean zer uste duzu eta zer aldaketa proposa daiteke?
- 10-Donostiako eta Euskal Herriko kulturaren aurrean, turismoa positiboa edo kaltegarria dela iruditzen zaizu? Hemengo kulturaren eragina duela esan daiteke? Zergatik?
- 11-Etortzen diren turistak hemengo kulturaren murgiltzen direla esan daiteke?
- 12-Sektore turistikoak beherakada bat pairatu ez gero, hiriko azpiegiturretan aldaketarik nabariko litzatekeela uste duzu?
- 13-Masifikazioek hiritarrek batzuetan donostiarrak ez sentitzea sor dezaketela uste duzu?
- 14-Inoiz elkarlanean aritu al zarete Udaletxearekin edo saiatu al zarete?

### **Jasangarritasuna:**

- 1-Turismoaren ardatzetako bat jasangarritasuna (ekonomikoa, sozio-kulturala eta ingurumenekoa) izan behar duela uste duzu?
- 2-Turismo jasangarria lortzeko herritarren iritzia eta pertzepzioa garrantzitsua dela uste duzu?
- 3-Uste duzu udaletxeak ahalegin nahikoak egiten dituela hiritarren pertzepzioak ulertu eta kontuan hartzeko?
- 4-Uste duzu Donostiako turismoa jasangarria dela edo oraindik lan handia geratzen da hara iristeko?
- 5-Donostiako turismoa jasangarriago izateko zein ekintza ari zarete garatzen?

### **Erantzun soziala:**

- 1-2017 urteko udaran, manifestazioak egon ziren turismoaren aurka. Horietan zer aldarrikatzen zen zehazki?
- 2-Ernai antolakundeak, zer eskaera egiten ditu zehazki?
- 3-Zuen mugimenduen aurrean, zein da udalaren jarrera? Eta hiritarrena?
- 4-Etorkizunean mugimendu gehiago sortzea espero dituzue, edota zuena hazten jarraitzea?
- 5-Egindako aldarrikapen eta eskaeren ondorioz, aldaketarik nabari duzue hirian?
- 6-Amaitzeko, udaletxeko turismo sailari zerbait esateko aukera izan ez gero, zer izango litzateke? Eta Donostiako hiritar guztiak entzuten egon ez gero, zer esango zenuke?